

# aitolka

## ETXEBIZITZA





**E**uskal Herriko Etxebizitza  
Sindikatu Sozialistaren  
programaren helburu nagusia  
proletalgo iraultzailea subjektu gisa berrosatzea  
da. Programa hori ez dago burgesiari eta bere  
instituzioei bideratuta, proletalgoari baizik. Eta  
burgesia eta haren instituzioak interpelatzen  
ditu horrela osatzen delako proletalgoa  
subjektu iraultzaile gisa bere etsaiaren aurkako  
borrokan. Programak etsai hori definitzen  
eta hezur-haragizko egiten laguntzen du.

# Edukia

---

**6**

---

**10**

---

**22**

---

**44**

---

## **EDITORIALA**

*Arteka*

**Komunismoaren  
aukera etxebizitzaren  
auzian (ere)**

---

## **KOLABORAZIOA**

Euskal Herriko  
Etxebizitza  
Sindikatu  
Sozialista

**Etxebizitzaren  
Aldeko Borrokarako  
Proposamen  
Politikoa**

---

## **ELKARRIZKETA**

Lucía Casado  
(Sindicato de  
Vivienda de  
Carabanchel)  
eta Álex Appel  
(Sindicat  
d'Habitatge de  
Mataró)

**Etxebizitzaren  
arloko borrokaren  
mugak eta erronkak**

---

## **HISTORIA ERREPORTAJEA**

Xabier Najarro

**Boterea hartzea eta  
etxebizitzaren arazoa  
1920ko hamarkadan**



# Komunismoaren aukera etxebizitzaren auzian (ere)

## Editoriala

**E**kainaren 10ean aurkeztu zuten Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista, hurrengo programarekin: 1) Alokairuen, hipoteken eta zorraren abolizioa; 2) Espekulazioaren eta errentismoaren amaiera; 3) Miseriazko etxebizitza sozialari ez; 4) Putre funtsen eta bankuen espropiazioa; 5) Hiri-gintza kapitalistaren eta espazioaren bereizketa klasistaren aurka; 6) Etxegabetze guztien etetea; 7) Filtro arrazista, burokratiko eta ekonomikoen ezabapena; 8) Etxebizitza segurua; erasotzaile, etxejabe eta polizia-rik gabea; 9) Etxebizitzaren kalitate galerari eta infraetxebizitzari ez; 10) Horniduren mozketen amaiera; 11) Garapen pertsonal askerako etxebizitza sistema baten alde; 12) Etxejabeen inpunitatearen aurka; 13) Etxebizitza hutsak okupatzeko eskubidea; 14) Etxebizitzaren aldeko borrokaren kontrako errepresioari ez.

***Programan, etxebizitzaren auziari dagozkion printzipio komunistak eta eginbeharrak jasotzen dira. Programa oro bezala, printzipio ideologikoak eta helburuak argitzeko praktika bat da, problematika nagusienak jasotzen dituen teoria komunistaren itzulpen politikoaren forman***

Programan, etxebizitzaren auziari dagozkion printzipio komunistak eta eginbeharrak jasotzen dira. Programa oro bezala, printzipio ideologikoak eta helburuak argitzeko praktika bat da, problematika nagusienak jasotzen dituen teoria komunistaren itzulpen politikoaren forman. Programan –eta programetan– ez da jasotzen, bada, praktika iraultzailearen gorabehera zertan datzan, hau da, zeintzuk diren programa hori egikaritzeko beharrezkoak diren bitarteko taktikoak eta baldintza politikoak. Alajaina! Halakorik jasotzen duen programarik ez da inon ezagutzen, bere helburua ez baita, inondik inora ere, komunismoaren antolakuntza-hedapena nola gauzatzen den azaltzea, printzipio politikoak argitzea eta horien bidez proletargoaren batasun ideologikoa erdiestea baizik, zeina funtsezkoa baita batasun politikoa, hots, subjektu izaera konkistatzeko, eta klase-antolakuntza zentralizatua posible egiteko.

Erreakzioak, ordea, ez ziren gutxi izan, bereziki programa baten forma eta edukia zertan datzan ezagutzen ez duten horien partetik –eta ezagutza falta, ikusiko dugun bezala, ez da kontingentea, estrategia politiko jakin baten gaitz endemikoa baizik–. Bereziki aipagarria da sektore komunistak jakin batzuetatik egin zen balorazioa. Aipagarria, ez berria delako, baizik eta teoria, dogmaren forman, buruz ikasitako errezeta bat bailitzan aplikatu ziotelako, berriz ere, komunismoaren programaren hezurramitze sozialari, alegia, bere itzulpen taktiko-politikoari, kasu honetan etxebizitzaren auzian.

Aipatutako balorazioek, baina, komunismoaren aldeko borrokari ez diote espaziorik txikiena ere aitortzen. Komuniston eginkizuna ez baita, antza, errealtate sozialean aritzea, bere inguruan, edo hobeki esanda, berau ustez sintetizatzen duen teoriaren inguruan, zirkuluetan mugitzea baizik. Azken finean, komunismoa ezinezko bilakatzen dute *de facto*, ez baita berarentzat aukerarik, teorikoki ebatzi ezean.

Baina ebazpen teorikoa, praktika komunistaren unea ez bada, zer da, praktika komunistak ezinezko egiteko bitartekoa baino? Edo bestela esanda: ebazpen teorikoak praktikari aurre hartzen baldin badio modu absolutuan, noraino eta teoriaren ebazpenak berak praktikaren aukera ezabatzeraino –teoria guztiz osatua egon artean, behintzat; ezinezkoa dena, betiere teoria praktikaren momentua baldin bada, eta ez hari kontrajartzen zaion objektua–, zein da, orduan, teoria eta praktikaren arteko harremana? Nolatan existitu daiteke praktikari uko egiten dion teoria bat, teoriaren ezaugarri nagusia baldin bada praktikaren sintesia izatea?

Ezbairik gabe, gauza desberdina da teoria bat ebaztea edo teoria baten inguruan bueltaka ibiltzea. Azkeneko horrek, teoria iraultzailearekin baino, lotura handiagoa du teorizismo burgesarekin; hau da, teoriaren inguruko eztabaidek errealtatearen eta gure praktika sozialaren inguruko eztabaidak ordezkatzeko dituzte, teoriaren beharra jakintza-gogo hutsal bilakatuz, eta bere inguruko eztabaidak teorikoen arteko eztabaida sasi-zientifikoen forman gauzatuz, militante politikoaren arteko eztabaidak izan beharrean.

Gauzak horrela, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak aurkeztutako programari bi motatako kritikak egin zizkioten: lehena, forman oinarritutako kritika; bigarrena, berriz, edukiari kritika. Biak ala biak, baina, kontzepzio edo eduki berdina dute oinarri, hau da, komunismoaren ikuspegi zehatza eskaintzen dute, zeina, ezbairik gabe, Mugimendu Sozialistaren ikuspegiarekiko kontrajarria den, kritikoei berauek aipatzen duten moduan.

Formari lotutako kritikak programak programaren forma hartzen duela dio, hots, errezeta-multzo batena, eta horregatik dela erreformista. Ikuspegi hori, ordea, praktika politikoaren ukazioan datza. Izan ere, estrategia bat taktika-programaren arabera garatzen da, eta hori zenbait puntutan jaso behar da ezinbestean. Puntu horiek, baina, ez dira erreformak, estrategia argitzera bidean ezartzen diren aldarrak eta neurri politikoak baizik, lehenik; eta ondoren, eta soilik indar metaketarako baliabide izan direnean, bilakatzen dira neurri egingarri, ziur asko beste ikuspegi garatuago batekin eta beste logika baten arabera berrantolatuta.

***Ebazpen teorikoak praktikari  
aurre hartzen baldin badio modu  
absolutuan, noraino eta teoriaren  
ebazpenak berak praktikaren aukera  
ezabatzeraino, zein da, orduan, teoria  
eta praktikaren arteko harremana?  
Nolatan existitu daiteke praktikari  
uko egiten dion teoria bat, teoriaren  
ezaugarri nagusia baldin bada  
praktikaren sintesia izatea?***

Azken batean, taktika-programa komunistak proletalgo iraultzailearen berrosatzea ahalbidetu behar du, eta bere puntuek kontzientzia hori posible egin behar duen taktika kulturalaren bitarteko ideologikoak izan behar dute, estrategia komunistari hezurmamtze soziala eskaintzen diotenak, eta taktika-programa argitzen.

Edukian zentratutako kritikek, bestalde, programa ezinezkotzat jotzen dute. Izan ere, antza, bere edukia ezin da garatu eta zentzugabea da, Alderdi Komunistarik ez badago. Horrek, baina, oinarritzko kontrakotasun bat uzten du agerian. Izan ere, Alderdi Komunistaren gabeziak taktika komunistarako aukerak ixten baldin baditu, Alderdi Komunistak ez da inoiz izango proletalgo iraultzailearen antolakuntza maila garatu bat, bere aurretik, eta gainera, ezartzen den egitura burokratiko-bertikala baizik: alderdi hori da praktikaren hasiera, eta ez praktika komunistaren beraren antolakuntza forma historikoa.



***Azken batean, taktika-programa komunistak proletalگو iraultzailearen berrosatzea ahalbidetu behar du, eta bere puntuek kontzientzia hori posible egin behar duen taktika kulturalaren bitarteko ideologikoak izan behar dute, estrategia komunistari hezurmamitze soziala eskaintzen diotenak, eta taktika-programa argitzen***

Alderdi Komunistaren ulerkera hori muturre-raino eramanez gero, Alderdia jakintsuen, hau da, dogma bilakatutako teoriaren –eta hargatik, aipatu bezala, ez errealtatearen– ezagutza gorena eskuratu dutenen antolakuntza espazio bilakatzen da, zeinaren eginbearra langileengan kontzientzia kanpotik txertatzea baita. Izan ere, kontzientzia ezin da praktikaren fruitua izan, bere abiapuntua baizik, eta praktikarekin inongo erlaziorik ez duen teoriaren ezagutza maila gorena dakar. Alegia, ikuspegi horren arabera, Alderdi Komunista teoria “osatu” –esan dezagun, dogma bilakatutako teoria– baten ezagutza maila gorenaren emaitza da, ezagutza maila gorena, kontzeptu gisa, posible bada ere soilik praktika sozialaren garapen maila batekin erlazioan, eta ez modu absolutuan, ezeren abiapuntu gisa.

Mugimendu Sozialistaren ikuspegia, ordea, bestelakoa da: Alderdi Komunista programa eta praktika/antolakuntza komunistaren emaitza da, behin eginbearrak argitu direnean eta ofentsibarako bitartekoak eskuratu. Hau da, Alderdi Komunista proletalگو iraultzailearen subjektu-bilakatze prozesuaren forma historikoa da, praktika komunistari lotutako eginbear programatikoen garapen organizatiboa, alegia.

Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren programaren helburu nagusia proletalگو iraultzailea subjektu gisa berrosatzea da. Programa hori ez dago burgesiari eta bere instituzioei bideratuta, proletalگوari baizik. Eta burgesia eta haren instituzioak interpelatzen ditu horrela osatzen delako proletalگو subjektu iraultzaile gisa bere etsaiaren aurkako borrokan. Programak etsai hori definitzen eta hezur-haragizko egiten laguntzen du.

Azken batean, etxebizitzaren auzian ere posible da, eta ezinbestekoa, programa komunistak bere hedapenerako bitartekoak eraikitzea. Horri uko egitea, komunismoari uko egitea da. ●

# ETXEBIZITZAREN ALDEKO BORROKARAKO PROPOSAMEN POLITIKOA

---


Testua — **Euskal Herriko  
Etxebizitza Sindikatu Sozialista**  
Irudia — **Irene Salvoch**

10



**G**arai batean, Mundu Berrira bidaiatu ohi zuten esploratzaile frantsesek bertako jendearekin batzuen eta besteen gizarte antolaketaren arteko desberdintasunei buruzko iritziak trukatzan zituzten. Gabriel Sagard errekoletoen ordenako fraidea izan zen Frantzia Berriko lehen misiolarietako bat, eta gaur egungo Ohion, Ontarion eta Michiganan bizi ziren Huron herriko klanak (huroiak) ezagutu zituen bere bidaietan. Sagard txundituta geratu zen tribu independenteetan era konfederatuan antolatutako klan txiki horiekin; etxe egonkorak eraikitzen zituzten eta lotsa oneko fraidearen moralala asaldatu zuten jantziak zeramatzaten soinean. Baina, batez ere, txundituta geratu zen Europako kontinente zaharra deskribatzeak —bere zibilizazioaren sehaska— huroien erdeinua sortu zuela ikustean. Paris deskribatu zien Sagardek: galtzada harrizko kaleak, zubien eta hainbat solairuko eraikinen moduko ingeniari-tza-lanak, baina huroien gaitzespen sakona jaso zuen esan zienean auzo batzuetan eskaleak pilatzen zirela eta Parisko kaleetan etxerik gabeko milaka pertsona ostatu bila aritzen zirela. Hari entzun ostean deliberatu zuten: beldurgarritzat jo zuten zuten Europako gizartea, zibilizazioaren erabateko porrota. Fraide frantsesak topaldi horiei buruzko narrazioetan eman zuen epaia: «frantsesak baino hobeak direla uste dute». Hitz horiek intelektual europarren eskuetara heldu ziren, Lockeren eta Voltaireren eskuetara, esaterako. Biak ala biak errentari handiak eta liberalismoaren oinarritzko printzipioetako baten sortzaileak, zeinaren arabera Estatua bizitzaren, askatasunaren eta, nola ez, jabetza pribatuaren defendatzailea den.

Mende batzuk igarota gorputz horiek berak hiri amerikarretako kaleetan pilatzen direla ikusten dugu: Bostonen, New Yorken, Detroiten... Hala ere, inork ez du porrot egindako zibilizaziorik aipatzen. Ez dago kanpotik epaitzen duen «besterik», sistema kapitalistaren kanpokorik ez dagoelako. Eta gu guztiok, menderatze sistema horretan murgilduta, ez gara gai errotik desberdina litzatekeen gizarte antolamendu bat posible dela iradokitzeke ere. Baliteke batzuentzat fentaniloaren zonbiak beldurgarriak izatea, edo etxebizitza bat ordaindu ezin dutelako egunero kale gorrian utzitako milaka pertsonen instituzioekiko eta jabeekiko gaitzespen moralala sorraraztea beste batzuei. Baina inork ezin du adierazi ere egin arazo horiek errotik deuseztatzeko modua ekarriko lukeela etxebizitza erabat doakoa, gaur egungo batez bestekoa baina kalitate handiagokoa eta modu unibertsealean bermatua izateak. Hala, gizarte jakin baten mugak, kapitalismoarenak, muga objektibo eta gaindiezin gisa ageri zaizkigu.



Handia da determinazio horiek aldatu ahal izateko egin beharreko lana. Guztiz askatzailea den programa politiko bat aldarrikatzea dakar egiteko horrek, gure kasuan klaserik gabeko gizarte baten bermea izango den Estatu Sozialistaren eraikuntzaren forma hartzen duena. Bestetik, eta esku artean dugun auziari dagokionez, horrek ezinbestean dakar gaur egun arazo partzial gisa agertzen diren bizitzako esparru ugarietan ortzi-muga estrategiko hori bera zehaztu eta zertu beharra. Estatu Sozialistak etxebizitzari dagokionez zer esan nahi duen azaltzen jakin behar dugu. Baina hori guztia ezin da ideia multzo hutsa izan, oso ondo adierazita badago ere; izan ere, huroiei gutxirako balio izan zien frantsesei egindako kritikak. Zapalkuntza koloniala haien poesia politikoari nagusitu zitzaion, eta mendez mende lurraldearen poro guztiak irentsi zituen gizarte kapitalistak. Ideien hegemonia ez da ideologikoki eraikitzen; ezinbestekoa da boterean oinarritzea. Horregatik, programa politikoaz gain, nahitaezkoa da antolakuntzaren bidez esku hartzea. Soldataren aldeko borroketan «autodefentsa sozialista» kontzeptu politikoaren bidez esku hartzeko gure proposamena ulertzeko, beharrezkoa da gaur egun destakamendu komunistei ematen diegun helburu estrategiko nagusiari erreparatzea, hau da, Masa Alderdi Komunistaren eraikuntzari. Horrek guztiak berehalako egiteko batzuk eskatzen dizkigu gainera, zentraltasun estrategikoaren ikuspegitik landu behar ditugunak, baina etxebizitzaren esku hartzearen eremuan zehaztu ditzakegunak: langileriaren independentzia politikoa berreraikitzeari buruz ari naiz, eta horrek proletalgoa beren programa politikoetan mendeko elementu gisa txertatu duten eragile guztiekin dakarren haustura sakonaz. Halaber, beharrezkoa da proletalgoaren politizazioarako egitura eraginkorrak sortzea, egungo bizi baldintzak hobetzeko borroka ere modu eraginkorrean garatuko dituztenak. Elementu horietan guztietan sakontzen ahaleginduko naiz segidan.

**Esku artean dugun auziari dagokionez, horrek ezinbestean dakar gaur egun arazo partzial gisa agertzen diren bizitzako esparru ugarietan ortzi-muga estrategiko hori bera zehaztu eta zertu beharra**




**Gizarte kapitalistak hura zuzentzen duen balioaren legeak ezarritako mugen barruan egiten du hori, hau da, burgesiarentzako irabazia eta proletalgoarentzat desjabetza sortzen duen salgaia da etxebizitza**

### **ETXEBIZITZA UNIBERTSALA, DOAKOA ETA KALITATEZKOA LORTZEKO, ESTATU SOZIALISTA**

Bizirauteko oinarritzko baliabidea da etxebizitza, eta, horregatik, gizarte orok bermatu behar die bere biztanleei etxebizitzarako sarbidea. Gizarte kapitalistak hura zuzentzen duen balioaren legeak ezarritako mugen barruan egiten du hori, hau da, burgesiarentzako irabazia eta proletalgoarentzat desjabetza sortzen duen salgaia da etxebizitza. «Etxebizitzaren arazoa» deritzoguna, beraz, sistema kapitalistaren oinarrietatik eratorritako arazoa da. Etxebizitza bat eskuratzeko dirua eduki behar bada, etxebizitzaren kalitatea eta etxebizitza izateko aukera klase sozialaren arabera izango da beti.


Sistema hau abolitzeak baino ez du ekarriko etxebizitzaren arazoa modu eraginkorrean deuseztatzea. Gainera, kapitalismoaren abolizioa, termino positibotan, sistema sozialista berri bat ezartzeak baizik ezin du ekarri, etxebizitza unibertsala, doakoa eta kalitatezkoak ezaugarritzen duen sistema batek, hain zuzen. Ekoizpen indarren garapenak aukera ematen digu, historian lehen aldiz, kalitatezko bizi maila modu unibertsalean bermatzeko. Aukera hori ez da zerbait abstraktua edo utopikoa; gizarte harreman kapitalistetan indargabetuta eta lotuta dagoen aukera baizik, askatu beharrekoa. Hau da, ongizatea bermatzeko aurrekaririk gabeko posibilitate baldintzak existitzen dira egun, baldin eta gizarte eta ekoizpen gaitasunen antolaketa era arrazional eta planifikatuan egiten bada. Estatu burgesak baliabideak irabaziaren beharren arabera antolatzen ditu –ekonomikoki eta politikoki kapitalari subordinatua dagoenez–; kontrara, Estatu Sozialistak baliabide horien guztien ahalmenak garatuko lituzke, arrazionaltasun berri baten zerbitzura jarriz. Hain justu, horixe izango da etxebizitza sistema hobe bat, aukera emango duena gizarteak sortutako aberastasun material eta ez-material guztia (gaitasunak, ezagutza, tresnak, azpiegiturak, teknologia...) zentralizatzeko eta modu berri batean planifikatzeko.





Baina hori guztia imajinaezina da gizartearen gehiengoarentzat. Ez programa ulertezina delako edo proletalgoaren gaitasun intelektualerako konplexuegia delako, baizik eta ez delako aukera erreal gisa existitzen, eta, beraz, ez delako kulturalki existitzen. Argi eta garbi esatearren: doako etxebizitzaren ideia ez da ideia oso korapilatsua, guztiz kontrakoa, eta, hala ere, errazago bururatzen zaigu prezioa pixka bat jaitsi beharko genukeela etxebizitzaren arloko askotariko arazoak konpontzeko –eta eztabaida izango litzateke zenbat jaitsi beharko litzatekeen eta zeren kontura–, erabat doako etxebizitza izatearen aukera baino. Muga hori gizarte arazo kapitalista guztietara zabal daiteke, eta lotura zuzena du komunismoak XX. mendearen bigarren erdian izandako porrot militar, politiko eta kulturalarekin. Hori horrela, etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko helburuz proposatzen diren programa politiko gehienak itxurazko pragmatismotik abiatzen dira. Proposamen horiek guztiak, politikoki garrantzitsuak direnak bederen, estatu burgesaren eta gizarte harreman kapitalisten esparruan egin behar diren erreforma zehatzetara mugatzen dira, eta hala aldarrikatzen dute prezioak kontrolatzea, etxe kaleratzeak aldi baterako etetea, okupazioa despenalizatzea, krediturako sarbidea bermatzea eta abar.

Hala ere, urgentzia erreformistak, pragmatismo sindikalak eta «gaitzik txikienaren» erretorikak gutxi dute egingarritik. Neurri batean, metaketa kapitalistaren krisiak berak ezarritako mugek eta proletalgoaren bizi baldintzen aurkako eraso orokortuaren testuinguruak maniobra-marjina murrizten dielako izaera aurrerakoiagoko gobernuei. Baina, batez ere, programa horiek ez direlako gai klase gizarteak eragindako arazoak erabat desagerrarazteko. Sozialdemokraziaren birbanaketa politikak urrun daude haien muga ekonomikora iristetik, eta egungo espektro erreformistaren kontsignak ere oso urrun daude Europako alderdi sozialdemokrata handiek garai batean aldarrikatu zutenetik. Etxebizitzaren arazoari dagokionez, pobrentzako karitate politikaren antz handiagoa du proposamen erreformistak: ez du jabetza pribatuaren gizarte forma batera aldatzen; ez du zailtzean jartzen, ezta gutxien-gutxienean ere, etxebizitzarako sarbideari eta kalitateari dagokionez klase posizioaren arabera dagoen aldea; ez ditu proletarioak etxetik botatzeko mekanismoak atzera botatzen, eta etxebizitza bizirauteko bitarteko huts bilakatzen du. Erdi-mailako klaseen programa horiek gizarte zatiketak gaindiezintzat hartzen dituzte, eta podium kapitalistan beraiek duten kopapena defendatzea dute helburu; horretarako, jabetza txikia babesten dute kapitalen kontzentrazio prozesuaren aurrean. Gainerakoentzat, miseriaren kudeaketa atseginagoa proposatzen dute. Horregatik guztiagatik, proposamen sozialdemokratak ezin du askapen unibertsalerako programa politiko bat eskaini, neurri batean, gizarte egitura kapitalistak ezarritako muga ekonomikoengatik –are gehiago gaur egun, soldaten aurkako eraso orokorreko fasean–, baina, batez ere, erdi-mailako klasearen gizarte posiziotik eratorritako programa baten muga politikoengatik, klase horrek mendekotzat hartzen baitu proletalgoa.



Horren guztiaren aurrean, proletalgoaren interes unibertsalak gauzatzeko proposamen politiko bat garatu behar da etxebizitzaren esparruan ere. Alde horretatik, duela gutxi sortutako Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak aintzat hartzeko moduko proposamen politiko bat jarri zuen mahai gainean. Adierazgarria da Etxebizitza Sindikatu nazionalaren aurkezpenarekin batera gizarteratu izana etxebizitzaren aldeko borrokarako duen proposamen politikoa: lehenik eta behin, nahiko urrun dagoelako gizarte mugimendu askotan presente dagoen joeratik, zeinak indarrak batzeko oinarri gehienetan identitarioak, askotan beste mugimendu politiko batzuek instrumentalizatutakoak eta ez oso esplizituak erabiltzen baititu. Inertzia horren aurrean, esperientziatik abiatuta diseinatutako eta kolektiboki onetsitako oinarri politiko argiak dituen antolakunde bat eratu dute. Bigarrenik, ez delako soilik etxebizitzaren esparrutik egindako proposamen politikoa, baizik eta Mugimendu Sozialista eraikitzen saiatzen ari den zentralitate estrategikotik egindakoa. Zehazki, Kontseilu Sozialistek hausnartzen dute etxebizitzaren aldeko borrokak komunismoaren berreraikuntza politiko, ekonomiko eta kulturalerako egin dezakeen ekarpenaz, eta ez alderantziz. Eta hori ez da hutsala, etxebizitzaren eremu partzialak ezin baitu modu efektiboan ebatzi etxebizitzaren arazoa nola gainditu.

Nabarmendu behar da joan den ekainean aurkeztutako proposamen politikoa ez dela erreforma zehatzak biltzen dituen programa bat: puntu bat bera ere ezin da bere osotasunean aplikatu gizarte kapitalistan, eta, aldi berean, puntu guztiak partzialki gara daitezke, erreformen bidez edo baliabideak eta gaitasunak antolatuz eta zentralizatuz. Adibidez, zenbait etxegabetze geldiarazteko berriazko neurriak har daitezke, baina jabetza pribatua existitzen den bitartean etxegabetzeak ere existituko dira. Beraz, gerra kulturalerako tresna eta etxebizitzaren aldeko eguneroko borrokarako gida da proposamen politiko hori. Konkretutasunaren bidez Estatu Sozialistaren potentzialtasuna ulertaraztea da egitekoa; arazo bakoitzaren gaindipena gizartearen berrantolaketa osoaren bidez uler dadila. Proposamen politiko honek lau puntu nagusi ditu: irabazi kapitalista indargabetzea eta doako etxebizitza ezartzea; pertsona guztientzako etxebizitza bermatzea, hau da, sarbide erabat unibertsalekoa izatea; kalitatezko etxebizitza hedatzea eta proletalgoaren eta, zehazki, militantzia politikoaren eskubide politikoak zabaltzea.


Doako etxebizitza, irabazi kapitalistari eraso egitearen kontura. Arazoa prezio altua besterik ez dela esaten dutenen aurka, alokairuak, hipotekak eta zorra indargabetzearen alde egiten dugu, bai burgesiaren bai erdi-mailako klase errentatzaileraren espekulazioa eta errentak amaitzearen alde. Enpresek eta estatuek miseriazko etxebizitza sozialarekin egiten duten negozioa amaitu behar dela diogu, eta proletalgo antolatuak putre funtsen eta bankuen etxebizitzak desjabetu behar dituela aldarrikatzen dugu. Ezinbestekoa da haiek askoz okerrago bizitzea, ongizate handiagoa modu unibertsalean bermatzeko. Irabaziari eraso egiteak hirigintza kapitalistaren eta hark sortzen duen espazioaren banaketa klasistaren aurka borrokatzea ere eskatzen du. Doakotasunaz gain, pertsona guztiek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten eskatzen dugu. Bizitzeko behar diren ondasunetarako sarbide unibertsalak proletalgoaren desjabetze historikoa amaitzea dakar, aurka eginez pobreei kontrapartidak eskatzen, iragazkiak jartzen edo epai moralak egiten dizkietenei. Horrek esan nahi du inor ezingo dela bere etxetik kanporatu, eta ez dela irabazia handitu dadin sarbidea mugatzen duten iragazki arrazistarik, burokratikorik eta ekonomikorik existituko. Baina, gainera, etxebizitzak, pertsona guztientzat izan dadin, espazio segurua izan behar du, erasotzailerik, etxejaberik eta poliziarik gabea. Eta, azkenik, etxebizitzaren kalitatea. Kalitatea mende luzetako soldatapeko esklabotasunaren emaitza da, burgesiaren domeinupean sortutako gizarte aberastasun erraldoiaren ondorio; azkenean, desjabetzaileei desjabetua, sozialki antolatua eta banatua izango da, proletalgoarentzat etxebizitza duina aldarrikatu eta kalitatea burgesiari uzten diotenen aurka. Horrek esan nahi du borroka egin behar dela etxebizitzaren kalitate galeraren aurka eta hornidura mozketen aurka, etxebizitza bere gutxieneko adierazpenera murriztuko ez duen etxebizitza sistema baten alde. Etxebizitza-sistema sozialista baten alde borrokatu behar gara, etxebizitza bermatuko duena, bizirauteko ez ezik, baita garapen pertsonal eta kolektibo librerako bitarteko moduan ere.

### **ALDERDI KOMUNISTAREN ERAIKUNTZARI EKARPEN EGITEKO, AUTODEFENTSA SOZIALISTA**

Proposamen horren helburua ez da maila ideologikoan atxikimenduak bilatzea soilik; komunismoaren hedapen kulturala ez du konbentzimendu hutsak ekarriko, baizik eta antolakuntza komunista organizatiboki eta politikoki gailentzeak. Beraz, antolakuntza da proposamen honi zentzia ematen diona, erreformaren mugak etengabe azpimarratzen baititu, eta kontsigna horiek Alderdi Komunistaren eraikuntzan are gehiago sakontzeko baliatzen. Eta antolakuntza da etxebizitzaren aldeko borroketan lortutako indar guztiak programa eta estrategia bateratu baten alde artikulatzen dituenena. Azken batean, antolakuntza komunistak eta haren programak bermatu behar dute borroka ekonomikoek ez dutela estatu burgesa elikatzen, eta alde-rantziz, bat egiten dutela komunismoaren berre-  
raikuntza organizatibo, politiko eta kulturalerako balio duen borrokarako indar handi bat eratuz.





Borroka ekonomikoak beharrezkoak dira bizi-raupen hutsagatik, eta ez dira desagertuko, klase borroka adierazpen oinarritzkoena eta proletalgoaren elkargune berehalakoena baitira. Hala ere, borroka ekonomikoetan esku hartzeko modu desberdinak daude, eta horietako baten alde egiten dugu guk: borroka horietan artikulatutako indarra komunismoaren proiektu politikoan batzeko aukera ematen duen aukeraren alde. Horretarako, «autodefentsa sozialista» kontzeptua proposatzen dugu; bizi baldintzen ezinbesteko defentsa eta baldintza horiek hobetzeko eta zabaltzeko borroka barne hartzen dituen praktika da, baina baita lortutako indarra Alderdi Komunistaren eraikuntza prozesuan integratzen saiatzen dena ere. Hala, azken buruko xedea ez da sekula agortzen behin-behineko hobekuntza ekonomiko horietan; helburua instituzio independenteak garatuz proletalgoak borroketan duen botere posizioa hobetzea izan behar da.

Borroka ekonomikoaren eremua gerra kulturalerako eremua da, beraz. Borroka horien bidez politika burgesaren mugak agerian geratzen dira, antolakuntza independentearen esperientzia hedatzen da, gaitasun propioen ahalmenarekiko konfiantza areagotzen da... Borroka horietako bakoitzean zentzu komunak urrats bat eman behar du aurrera: etxegabetze bat gelditzeak burgesiaren mundu ikuskera indartzeari utzi behar dio, eta aletxo bat gehiago izan behar du zentzu komun berri baten norabidean. Zentzu komun horrek etxegabetze guztiak errefusatu behar ditu; uko egin behar dio batzuek badaukatelako eta beste batzuek ez daukatelako etxebizitza ordaintzea betebeharrak ekonomiko eta politiko izateari. Baina ez gara iritziak mobilizatzeari edo zentzu komunak aldatzeari soilik ari. Esan bezala, proiektu baten hegemonia ez da ideologikoki eraikitzen, duen indar politikoaren bidez baizik. Horregatik, borroka horiek guztiak instituzio proletarioak sortzera bideratu behar dira. Hau da, soldataren aldeko borrokek proletalgoaren antolakuntza independenteak prozesu sozialen gainean duen kontrol progresiboa elikatzeko balio behar dute. Hobekuntza bakoitza gizartearen antolaketari berri batean integratu behar dugu; burgesiari prozesu sozialen gainean duen kontrola –pribatua edo estatuaren bidezkoa– kendu eta proletalgoaren zuzendaritza demokratikoaren pean txertatu behar dugu. Instituzio proletarioek, bizitzako esparru guztietan antolatuta, beren baitan eta gizarte diziplina berri baten pean integratuko dute irabazi kapitalistari kendutako hori. Azken batean, auzia borroka ekonomikoak proletalgoa politizatzekeo espazioak sortzeko eta koadro teknikoaren oinarri sendoa eraikitzekeo baliatzean datza, lurraldearen gaineko kontrol eraginkorra ezartzeko gaitasuna lortzen den unean gaitasuna izan dezaten ahalik eta prozesu sozial gehien kudeatzeko.



***Borroka horietan  
artikulatutako indarra  
komunismoaren  
proiektu politikoan  
batzeko aukera ematen  
duen aukeraren alde***






## **Politika erreformistekiko haustura politikoa ekarri behar du maila guztietan; interes interklasistak biltzen dituen «etxebizitzaren aldeko mugimendu» kontzeptuaren berrikuspena eta esparru politiko propio baten zabalpena**

### **EPE LABURREKO ONDORIOAK**

Orain arte esandakoak epe laburrean kontuan hartu beharreko ondorioak dakartza. Etxebizitzaren aldeko borrokan jarduten duten eragileek ikuspegi iraultzailetik landu beharko lituzketen lau zeregin nagusi aipatuko ditut abiapuntu gisa: lehenik eta behin, orain arte etxebizitzaren aldeko borroka eta haren eragile nagusiek izan dituzten mugen gaineko analisia doitu behar da. Analisi hori ezin da kasu batzuetan egokiagoak edo desegokiagoak izan diren taktika sindikalek dituzten mugetara mugatu; aitzitik, haien hutsune estrategikoetan sakondu behar da, haien eraginez pasatu baitira «gizarte mugimenduaren» rolera, eta, hala, zenbait alderdi parlamentariok instrumentalizatzeko moduko bihurtu. Bigarrenik, analisi kritiko horrek arestian aipatutako gaiei buruzko eztabaida sakon eta zintzo baterako prelude gisa balio behar du. Premiazkoa da eztabaida estrategikorako espazioak eratzea, printzipio ukaezin hauek oinarri hartuta: klaserik gabeko eta inolako zapalkuntzarik gabeko gizarte bat eraikitzeko beharra eta hura proletalgoaren independentzia politikoa eraikiz egiteko premia.





Proletalgoaren independentzia politikoa ez da proletalگو soziologikoaren espazio eskusiboen antolaketa gisa ulertu behar, baizik eta, esan bezala, proletalگوaren interes unibertsalen berreraikitze ideologiko eta organizatibo moduan, hau da, proletalگوa subjektu politiko iraultzaile gisa berreraikitzean. Horrek ondorioak dakartza, baita etxebizitzaren aldeko borrokan ere: borrokan ari diren eragileen eta antolakunde sozialdemokraten artean sortu diren loturak askatzea esan nahi du. Ondorioz, bai, politika erreformistekiko haustura politikoa ekarri behar du maila guztietan; interes interklasistak biltzen dituen «etxebizitzaren aldeko mugimendu» kontzeptuaren berrikuspena eta esparru politiko propio baten zabalpena.

Azkenik, prozesu horrekin batera lehen aipatutako helburu eta printzipioekin bat datorren taktika sindikal eraginkorra garatu behar da. Horrek esan nahi du etxebizitza sindikatuek eta beste erakunde sindikal zein erreformista batzuek erabilitako taktikak berrikusi egin behar direla: tresna asko baliagarriak izango zaizkigu eta beste batzuk ordezkatu egin beharko dira. Badira praktika sindikalean oso erabilgarriak zaizkigun metatutako ezagutzak –presio mekanismoak, etsaiaren ezagutza, agitazio eta propagandarako bitartekoak eta abar-, bai eta autodefentsa sozialista ulertzeko dugun moduarekin kontraesanean dauden beste batzuk ere –burokratizazioa; jabe handien kontrako gatazkei lehentasuna ematea; klase batasunaren aurka egiten duten kontsignak eta aldarriak, batzuen interesak besteen gainetik jartzen dituztenak, etab.-. Horrek guztiak soldataren aldeko borrokaren eredu eraginkor bat fintzen lagundu behar digu, aldi berean proletalگو iraultzailearen antolakuntza politikoa eta egungo bizi baldintzak hobetzeko balioko duena. ●

BI MILITANTERI ELKARRIZKETA  
ETXEBIZITZAREN ARLOKO MADRILGO ETA  
BARTZELONAKO BORROKARI BURUZ:

***Etxebizitzaren  
arloko  
borrokaren  
mugak eta  
erronkak***





---

**Lucía Casado**, Sindicato de  
Vivienda de Carabanchel

---


**Álex Appel**, Sindicat  
d'Habitatge de Mataró

## Lehenik eta behin, zeuen lurraldean zer agentek esku hartzen duten politikoki etxebizitzaren auzian? Zer proposamen politiko dituzte eta zer taktikak bereizten dituzte elkarrengandik?

**L**ucía: Galdera horri erantzuteko garrantzitsua da argitzea zaila dela Madrilgo etxebizitza-mugimenduan esku hartzen duten eragile desberdinen ezaugarriak argi eta garbi ematea. Ez sentsibilitate politiko eta antolakuntza-eredu guztiz desberdinak dituztelako bakarrik – izan kolektiboaren artean, izan kolektiboaren barrenean –, baizik eta eztabaida politiko batzuk oso gutxitan azaldu direlako modu esplizituan. Hori esanda, aktore mota desberdinen bereizketa egin genezake, baina, berriro diot, sailkapen horrek ez die erantzuten kolektibo bakoitzaren posizionamendu esplizituei, joera anbiguo samar batzuei baizik.

Lehenik eta behin, PAH (Plataforma de Afectadas por la Hipoteca, “Hipotekak Kalteturikoen Plataforma”) eta Stop Desahucios markek oraindik badute presentzia hegoaldeko hiri eta auzo batzuetan, hala nola Useran, Vallecasen, Leganésen, Alcorcónen, Parlan edo Móstolesen. Talde lokalak dira, eta, gatazkaren fokua hipotekaren iruzurretik alokairu-prezioen gorakadara eraman ahala, jarduera eta militantzia galdu dute pixkanaka, ez baitute gaitasunik izan beren esku-hartzeko eredu berritzeko, ezta belaunaldien arteko jarraipena izateko eta ezkerreko alderdi politikoe-kiko autonomiaz aritzeko. Kolektibo horiek, nahiz eta desberdintasunak izan beren artean, haiek dituzte oinarriak: aholkularitza kolektiboak, jabetzari presio egiteko ekintzak eta desobediencia-jarduerak, negoziazio estrajudiziala eta lege-erreformen aldeko borroka. Unerik gorenetan, 2010 eta 2013 urteen artean, abokatu-sare handi baten babesa zuten, “lan sozialak” martxan jartzeko gaitasuna (etxebizitza-blokeak okupatzekoa), gizartearen babesa eta estatu-mailan koordinatzeko mekanismoak zituzten, baita lege-proposamen propioak egiteko gaitasuna ere (hor dago “las 5 de la PAH” legegintzako herri-ekimen ezaguna). Hala eta guztiz ere, beren antolakuntzarako eta esku-hartzerako formak, diskurtsoak edo proposamen politikoak beti izan dira informalak, asanblearismoaren eta horizontaltasunaren printzipioak aurreuposatu dituzte beren eguneroko lanean eta “etxebizitza duina izateko eskubidearen” eskaeraren bueltan saiatu dira jendea biltzen. Osaerari dagokionez, haiek txertatu zuten berritasun nagusia eta potentzialtasuna zera da: harremanetan jarri zituztela normalean elkarrekin antolatzen ez diren proletariotza-sektoreak, eta hor presentzia handia zutela emakume migratzaile eta arrazializatuek, bereziki Madrilgo hegoaldeko eskualdeetan.

2014-2015etik aurrera, Podemos sortu eta udal-hauteskundeetarako hautagaitzak aurkeztu zituztenez, PAHren bueltako ekintzaile asko instituzioetara pasatu ziren, eta haien diskurtsoa eta eskaerak nabarmen asimilatu zituzten. Gainera, hipotekaren bueltako gatazka baretu zen (neurri batean neurri sozialen ondorioz, adibidez, “moratoria”) eta kolektiboaren barne-gatazkak ugaritu ziren; ondorioz, geroztik talde lokal horiek desagertu edo nabarmen ahuldu dira leku askotan. Madrilan, adibidez, Etxebizitzaren Koordinakundea desagertu da –koordinakunde horrek batzen zituen kolektibo horietako asko–, eta oraindik bizirik daudenek jarduera anekdotikoa dute gaur egun. Hemen, akaso, aipamen berezia behar luke Vallecaseko PAHk, berak jarduera handia izan baitu. Kasu horretan, indar handia izaten jarraitu du auzoan sare sozial eta asoziatibo indartsua zuelako, eta La Villana Zentro Sozialean parte hartzen zuelako; horri esker, lotura solidoagoak eraiki dituzte beste herri-kolektibo eta -egitura batzuekin (talde antiarrazistak eta feministak, jaki-toki solidarioak, bizilagunen elkarteak, etab.). Gainera, beti izan dute beste taldeek baino harreman gatazkatsuagoa alderdi politikoekin eta instituzioekin.







***Garrantzitsua da argitzea zaila dela Madrilgo etxebizitzamugimenduan esku hartzen duten eragile desberdinen ezaugarriak argi eta garbi ematea. Ez sentsibiltate politiko eta antolakuntza-eredu guztiz desberdinak dituztelako bakarrik, baizik eta eztabaida politiko batzuk oso gutxitan azaldu direlako modu esplizituan***

*Azken aldian batzuk muga horietaz jabetu dira, bakoitzak bere analisiarekin, eta behintzat hasiak dira beharrezko eztabaida batzuk irekitzen*







Bestalde, Madrilgo etxebizitza-borrokan esku hartzen duen beste eragileetako bat Sindicato de Inquilinas da (“Maizterren Sindikatua”). 2017an jaio zen, eta, nagusiki, bi diagnostiko zituen oinarrian: lehenbizi, hipotekek etxebizitzaren bueltako auzi nagusia izateari utzi ziotela eta orain alokairu-burbuila zela arazoa, eta, beraz, antolatu beharreko kolektiboa maizterrek osatzen zutela; eta, bigarren, beharrezkoa zela jauzi bat ematea antolakuntzan, eta atzean utzi behar zirela ordura arte etxebizitzaren mugimenduak ezaugarri izan zituen informaltasuna eta asistentzialismoa. Bigarren horri lotuta, afiliazio-kuota, liberazio eta gatazka kolektiboetan ardatzutako ekintza-sindikaleko eredu bat ezarri zen, eta kasurik onenean jabetza handiak zituen norbaiten blokeak antolatzen zituzten. Kolektibo honek asmatu egin zuen koiuntura ekonomiko-finantzarioa aldatua zela interpretatzean, eta horrek arrakasta ekarri zion hasieran (batez ere gazteen artean, nagusiki alokairuan bizi direlako). Gainera, gatazkak estrategikoki hautatu izanak, gaitasun ekonomiko handiena berak izateak eta berrikuntzak txertatu izanak maila taktikoan eta antolakuntzakoan aukera eman dio gatazka kolektibo handiak izateko, presentzia mediatiko handia lortzeko eta jende askori aholkularitza-zerbitzu azkarra emateko; horrek guztiak antolakuntza-egitura sendotu du. Osaerari dagokionez, nahiko desberdina da PAHren aldean: nagusiki unibertsitateko prestakuntza duten ekintzaile eta militante gaztez osatua dago, eta haietako batzuk ezagunak dira analisi- eta ikerketan dituztelako eginak etxebizitzari buruz. Esan behar da sindikatu horrek Bartzelonakoari jarraitu ziola, aurreratuago baitzegoen egituran eta helburuetan, La Hidra kooperatibari eta Observatori DESC plataformari lotua zegoenez. Espazio horretan sentsibilitate politiko desberdineko militanteak daude, hasi anarkosindikalistetatik eta erreformistetarai-

no. Nahiz eta barne-mailan ez duten estrategia politiko argirik, beren esku-hartzearen apustua maizterrak modu kolektiboan antolatzea eta gatazka horiek bozgorailu gisa erabiltzea lege-aldaketak proposatzea da. Horrela, agenda mediatikoan alokairuari lotutako arazoak jartzen eta horrekin iritzi publikoan eragiten saiatzen da, une bakoitzean gobernuan den alderdi politikoari presioa eginez maizterrentzat legedia mesedegarriagoa lortzeko; hain justu, maizterrak dira haien ustez antolatu beharreko subjektua (baina ez dute definitzen nor diren, soilik diote “alokairua ordaintzen dutenak” direla).

Azkenik, Etxebizitza Sindikatu eta Asanbladak (Carabanchel, Tetúan, Villalba) eta Auzo Sindikatuak (Moratalaz, Hortaleza...) leudeke. Batzuk Katalunian 2015-2016 urteetan bultzatu ziren izaera sindikaleko auzoetako antolakuntza-forma berriekin batera sortu ziren, eta beste batzuk gehiago 15M edo PAHri lotuak (lehen aipatu dugun PAH Vallekas ere talde honetan sar dezakegu). Antolakuntza-forma horien pean, lurraldeari lotutako subjektu politiko bat sortu nahi zuten, eta, hala, lurralde hori gurutzatzen zuten problematika ugariari heldu, gatazka erabiliz erreminta taktiko nagusi moduan. Errepresioak gero eta kostu handiagoa zekarkien, sozialdemokraziak egitura horietako batzuk ideologikoki asimilatu zituen (nahiz eta haietako askok diskurtso esplizituki antikapitalistari eutsi) eta jendeak etxegabetzeen moduko gatazken aurrean zuen sentsibilitateak behera egin zuen; zehazki, kolektibo hauen beherakadaren arrazoi nagusia orientazio estrategiko falta izan da. Gainera, ekintza sindikalaren planoan, ez dute lortu PAHren oinordetzatik ikasitako mekanismoez harago joatea. Hala ere, egia da azken aldiaren gutxienez azken sektore horretan batzuk muga horietaz jabetu direla, bakoitzak bere analisiarekin, eta behintzat hasiak direla beharrezko eztabaida batzuk irekitzen.

**Álex:** Termino politikotan, Katalunian beti egon dira bi espiritu etxebizitzaren aldeko borrokan: batetik, lege-aldaketak eta herritarren mobilizazioak babesten dituen espiritua, eta espiritu “iraultzailea” bestetik, zeinak etxebizitzaren borroka klase-borrokaren adierazpide moduan ulertu izan baitu. Proposamen politikoak eta taktikoak bi joera orokor horien arabera-koak izan dira beti. Kontrastean zeuden alde batean legeak proposatzea eta haiek blokeatzean edo balio gabetzean protesta egitea eta hedabideetan presentzia handia izatea, eta beste aldean pisuak, espazioak edo blokeak okupatzea jendeari ostatu emateko edo antolakuntzarako, jabeen aurkako presio ekintzak eta abar. Hori horrela, ezin dugu erori bi espiritu horiek agente politiko bati edo beste bati mugatzearen akats edo sinplifikazioan; izan ere, espirituok, oro har, eragina izan dute mugimenduan, forma desberdinetan. Hori ikus daiteke etxebizitzaren borrokako Kataluniako hiru agente nagusietan: PAH, Sindicat de Llogateres i Llogaters (maizterren sindikatuak) edo Sindicat d’Habitatge (etxebizitza-sindikatuak) direlakoak. Bi joera horiek beti egon dira sokatiran, izan agente horien barrenean, izan haien artean, bakoitzak posizio politiko berezi bat ordezkatzuz, baina une batzuetan egon da bien arteko kontsentsua eta ekintza-batasuna ere, nolabait esatearren.

Zentzu horretan, etxebizitzaren arloko militante sozialista moduan, geure irakurketa da bi espirituak txanpon beraren bi aldeak direla, eta horren atzean dagoen errealitatea dela mugimenduak ez duela independentzia politikorik ezkerreko alderdiekiko, eta sozialdemokraziaren mugimendu sozial subalternoen sorgin-gurpilaren forman dagoela mugatua. Alde “erreformistek” eredu hori baliozkotzat jo dute, modu irekian edo inplizituki. Joera iraultzaileak ez dira gauza izan beren praktika eta proposamenak lokaletik edo diskurtsoaren erradikaltasunetik harago eramateko, une zehatz batzuetan izan ezik, eta ez dira gai izan estatuaren eta alderdien eragin handi hori zartzateko. Hori esatean ez dugu geure burua hortik aldentzen: dinamika horren parte izan gara, eta bertan jaso dugu prestakuntza eta politizazioa etxebizitzaren arloan, onerako eta txarrerako. Hausnarketa horietako askoren ondorioa da ezinbestekoak direla antolakuntza komunistaren eta independentzia politiko proletarioa, eta hori ulertu izana esperientzia horietatik datorrela. Hala ere, adi, horrek ez baitu esan nahi orain arteko guztia galtzen uztera goazenik: gure asmoa etxebizitzaren mugimenduan dauden horiek espiritu iraultzaile horrekin interpelatzea da, eta horretarako inpotentziatik ateratzen gaituzten proposamenak egitea.





*Gure asmoa etxebizitzaren mugimenduan dauden horiek espiritu iraultzaile horrekin interpelatzea da, eta horretarako inpotentziatik ateratzen gaituzten proposamenak egitea*



**2008ko krisian, zenbait ekimen sortu ziren hipoteka betearazteko prozesuen bueltan, adibidez, PAH plataformak. Laster jo zuten goia, eta, urte batzuen buruan, gaur egun auzo askotan ikus ditzakegun etxebizitza-sindikatuak edo maizterren sindikatuak sortu ziren. Aurreko zikloko mugimenduen aldean, zer berrikuntza dakartzate maila politikoan eta taktikoan?**

**Lucía:** Hasiara batean, Podemos eta udal-hauteskundeetarako hautagaitzak protagonista izan zituen “instituzioen aurkako eraso” delako horren bueltan, militantziako sektore batzuek alderdi mugimenduaren hipotesia baloratu zuten, hau da, ulertzen zuten loturaren bat behar zutela alderdiak eta mugimendu sozialek, eta formalizatzeraz ere iritsi zitekeela, eta mugimendu horien artean zeuden etxebizitzarena eta PAH, horiek baitziren jarraipena eman nahi zitzaizen ziklo politiko horretako esanguratsuenak eta hura hobekien ordezkatzeko zutenak. Hala, denbora batez, “hanka bat kalean eta beste bat instituzioan” izatearen ideiarekin jardun zuten; bigarren hanka horrek, mugimendu sozialak geldialdian edo beheraldian zeuden une batean, lehenbizikoaren posibilitate-baldintzak zabaltzen lagundu behar zuten, eta, aldiz, mugimenduen zeregina instituzioen barnetik egindako ekintzei “kaletik bultza” egitea zen. Ulertzen zenez, elkarrekin artikulatu beharreko bi parte ziren, eta haien arteko tentsioak “demokratizazio” handiagora bultza zezakeen.

Ordea, 2017. urtearen bueltan (nahiz eta lehenago ere beti egonak ziren ahots kritikoak), baieztatu egin zen eredu horrek porrot egin zuela, besteak beste Podemosek “traizio” egin zuelako; izan ere, une bakoitzean oposizioan egoteak edo kanpainen egoteak mugimenduaren bateko edo besteko arretea ematea eragiten zuten. Hala, beste hipotesi bat planteatzera igaro ziren: mugimenduek ez zuten lan osagarria egin behar, paraleloa baizik, eta, beren autonomia bermatzen zuten bidea hartu behar zuten, eta inola ere ezin zuten makurtu instituzioen erritmoetara, baizik eta erritmo horiek gainditzera iritsi behar zuten (“ordezkaezinak” izatea lortu behar zuten). Gainera, etxebizitzaren mugimenduaren dagokionez, testuinguru ekonomiko-finantzarioa erabat aldatu zen, eta alokairuari lotutako higiezinaren burbuila bihurtu zen fokua. Egun, nahiz eta Espainiako biztanleen gehiengoa etxebizitza baten jabe izan (haien parte bat hipoteka ordaintzen ari da), alokairuaren merkaturaz gero eta handiagoa bilakatu da, eta Estatuko hirigune handietan, alokairu horien prezioek ikaragarri egin dute gora prozesu espekulatibo nabarmen baten eraginez; horretan lagundu dute nazioarteko inbertsio-funtsak alokairuaren negozioan masan sartu izanak eta hirietako gentrifikazioko eta turistifikazioko prozesu luzeak. Gainera, problematika horretan aipatu beharrekoa da “errenatismo popularraren” fenomenoaren ere, hau da, ez da ahaztu behar erdi-mailako klaseetako ehuneko jakin batek diru-sarrerak lortzen dituela alokairuaren bidez eta etekinak ateratzen dituela prezioen gorakada konstante horretatik; etxebizitzaren mugimenduak ez du sekula jakin horri nola erantzun, edo ez dio inoiz erantzun nahi izan.

Testuinguru horretan, sindikalismo sozialak garrantzia berezia hartu zuen; izan ere, gizarte mugimenduek galdutako indarra iraultzeko tresna egokitzat jo zen. Krisi kapitalistatik eratorritzen diren problematika eta bizi-esperientzia konkretuenei elkar babesaren bidez aurre egiteko modua da. Horren bidez, beste bizipen batzuk aitortzea eta barne hartzea lortu zen, zeinak sindikalismo tradizionalak, hertsiki soldata zuzenaren egiturak kokatzen zenez gero, ez baitzuten ordua arte bere gain hartu. Horrela, jada existitzen ziren asoziazionismo-esperientzien gisakoen sorrera bultzatu zen, horien artean PAH plataformen gisakoena. Horiek abiapunturako egiturak bilakatu ziren, eta jarraitzeko eredu. Nahiz eta ez zuten erabateko hausturarik aurreko zikloarekin, sintomatikoa da logika eta hizkuntza sindikala erabiltzen hasi izana, urte batzuk lehenago pentsaezina izango baitzen. Izan ere, urte horietan 15M mugimenduaren ondorengotzak horizontaltasunaren eta asanblearismoaren *fetitxe* moduko bat sortu zuten, eta errezeloa hedatu zen eredu klasikoa-goko antolakuntza-eredu ororen aurrean. Ikus daiteke, beraz, hasia zela “hobeto eta gehiago” antolatu beharra eztabaidatzen, hori esateak abstraktua eta lausoa badirudi ere.

Marko hori gaur egun ere indarrean dago, hainbat modutara. Alde batetik, “borrokan dauden komunitateak” sortzeko apustua legoke, esaterako Madrilen Vallekaseko PAHk gorpuzten duena: bere eragin eremua etxebizitzaren problematikatik harago zabaltzeko asmoa dauka eta lehen horretatik eratorritako beste egitura batzuk sortzen ditu, esaterako, biltegi solidarioak eta herri-ikastetxeak. Bestetik, Sindicato de Inquilinas-ek negoziaketa kolektiboen alde egiten du (KPIaren igoera, etxe-agentzien gastuak...). Agenda mediatikoaren fokupean jartzea bilatzen da horrela, eta auzi horrekin lotutako lege aldaketak bultzatzea. Azkenik, esan dezakegu 2020 eta 2022 urteen artean “barriernalismoa” gainditzea helburu zuen sindikalismo sozialaren aldeko apustu esplizituagoak egin direla. Gauzak horrela, auzo sindikatuek, esaterako Carabanchelekoak, jabetzaren auzia gainditzeko izaera sindikalagoko eta kolektiboagoko proposamenak jarri zituzten martxan. Sakoneko eredu asistentzialistak gainditzea zen helburua, pertsonalistak eta antzuak zirelako, baita ustelkeriazkoak ere zenbaitetan. Apustu horrek Katalunian etxebizitzaren auziak zuen jorari erantzuten zion erabat, bereziki *Congrès d’Habitatge*-aren lehenengo kongresuaren ondorengoari (auzo eta herri arteko sindikatuak, herri-egiturak, mugimenduaren bateratutako kanpaina, gatazka kolektiboak...). Mugimenduan haize freskoa eragin bazuen ere, adierazgarria da urteetan Madrilgo etxebizitzaren mugimenduak zer ahultasun eta desegituraketa izan duen, estrategia eta eduki politikoaren falta nabarmenaren eraginez..

## ***Sakoneko eredu asistentzialistak gainditzea zen helburua, pertsonalistak eta antzuak zirelako, baita ustelkeriazkoak ere zenbaitetan***



**2015az geroztik, Katalunian indarra hartu zuen etxebizitza sindikatuen ereduak. Zer elementuk eragin zuten zabalpen hori eta zenbateraino ulertu zen hori iraungitze-data zuen “aukera-leiho” moduan? Hala ulertu bazen, egon zen hausnarketa zintzorik problematika hori lantzen zuten kolektiboen artean?**

**Alex:** Hala da. Baina zuk diozunari ñabardura bat egingo nioke. Aukera-leiho deitu duzun hori 2008an zabaldu zen bera zen. Arazoa izan zen inguru militante eta iraultzaileenak ez ginela hori ikusteko gai izan, salbuespenak egon baziren ere. 2015 eta 2019 urteen artean gertatu zena izan zen zuzendu egin zela ikuspuntu gabezia hori: tradizio ekintzaile “iraultzaileenek” etekina atera zioten Bartzelonako PAH izaten ari zen beheraldiari eta Sindicat de Llogateresek antolakuntza-gaitasun nahikorik ez izateari; hala, etxebizitzaren aldeko borroka klase-borroka adierazpen modura zabaldu zen. Nolabait esatearren, izate iraultzailearen eta erreformistaren arteko talkaren beste adierazpen bat baino ez zen izan. Baina, orduko hartan, logika hau gailendu zen: politikan ez dago espazio hutsik, ez dago espazio hutsik mugimenduaren barnean guk ikusi eta betetzen dugunik.

Hortik aurrera, parean sortu zen abagunea 2008ko krisitik zabalik geratu den bera da, borroka-bolada aberatsa ekarri zuena. Soziologikoki, sindikatu horiek ordezkatzen zutena oinarri proletario sakoneko pertsonen eta gazte militanteen arteko nahasketa zen, ez lehenengo Hipotekak Kaltetutakoen Plataforma hura bezain zabala. Gizarteko gainerakoen mobilizazio gaitasuna txikiagoa bazen ere, zirrikituei etekina atera zitzairen gatazkak bultzatzeko: eguneroko mobilizazio eta garaipenak izan ziren. 2015 eta 2019 urteen artean agenda politikoa baldintzatzeko gaitasuna egon zen, baita borondate politikoa iraultzailea edukitzeko ere. Lehenengo *Congrés d'Habitatge* hartan, ekintza sindikalerako taktikak eta herri egiturak egonkortu ziren, eta sindikatuak Bartzelonatik harago zabaltzeko gaitasuna egon zen; lorpen horiek horren guztiaren ondorioa izan ziren.

Dena den, autokritikarako elementu argia da garaian ez genuela aurreikusitako testuinguru hori zenbateraino zen koiunturala eta unekoa; baliteke gehiegizko euforia eduki izana. Gu gero eta antolatuago geunden, baina gizarteko gainerakoak eta klasea bera gero eta gutxiago zeuden antolatuta. Gerora, etxebizitza problematikaren inguruan antolatzen ginen Arran eta Endavanteko militanteen artean hori guztia antolakuntza-mailan gorpuztu genuen, eta hausnarketa bultzatzen saiatu ginen, baina horietako gehienek antolakunde horiek utzi genituen edo bota egin gintuzten iragan den ikasturtean, zatiketa gertatu zenean, eta proposamen eta hausnarketa horiekin jarraitzeko borondatea bertan behera geratu zen.







***Baina, orduko hartan, logika hau gailenduzen: politikan ez dago espazio hutsik, ez dago espazio hutsik mugimenduaren barnean guk ikusi eta betetzen dugunik***

**Uste duzue eredu hori agortzen ari dela? Hala uste baduzue, azaldu zein diren aurkitu dituzuen mugak.**

**Lucía:** Bai horixe, nabarmena da etxebizitzaren aldeko borroka forma hori bere amaierara iristen ari dela. Hori bereziki nabaria da pandemiaren geroztik, eta hori ez diot nik, eta ez da soilik Mugimendu Sozialistak mahai gainean jarri duen zerbait; mugimenduaren baitako gehienek uste dute hori, salbu eta interes korporatibistak dituzten zenbaitek. Agerikoa da nola galdu den etxegabeteak gelditzeko gaitasuna, izan etxeko atean bertan, izan ohiko tresna burokratikoak erabilita. Okupazioaren aurkako kriminalizazioak gora egin du, baita errepresioak ere. Mobilizatzeko gaitasuna galdu da, eta berehalakotasunak eta urgetziak agindutako jarduteko erak hutsune estrategikoa eragin du.

Urrian, Prozesu Sozialistaren Aldeko Topaketak (EPS gaztelaniaz) aurkeztu genituenean, ponentzietako batek hain justu gai horren inguruan hitz egiten zuen: militanteetako batzuek etxebizitzaren aldeko borrokan aurkitu genituen muga inguruan. Gehienbat, antolakuntzarekin lotutako mugak ziren, maila teoriko-estrategikotik eta zatikatze zetozenak. Antolakuntzari dagokionez, batetik, barne-egituren ahuleziaz ari gara, sindikatuenaz eta asanbladenaz. Horrek eragiten du gaitasun militanteak berehalakotasunak eta jardun asistentzialistak jatea. Beraz, horrek

zaildu egiten ditu berritasun taktikoa eta hausnarketarako espazioak. Bestetik, etxebizitzaren atomizazioak ezaugarritzen duen antolakuntza-ereduak asanbladen eta sindikatuen arteko lotura falta indartzen du, auzo bakoitzean eta herri bakoitzean banaturik antolatzen baitira. Asanbladen “autonomia” zerbait positiboa balitz bezala ulertu da, eta, horrela, ezkutatu egin dira horien baitan dauden botere harremanak: hau da, militantziaren “abangoardia” moduko horrek erabakiak hartzeko duen gaitasuna ezkutatu da. Era berean, atomizazio hori gairatu nahi duen edozein proposamenen irudikapen maltzurra egin da, eta ulertzera eman da horrek autonomia galaraziko lukeela. Horrek guztiak koordinazioaren paradigma ekarri du, hau da, osotasuna beharrezan nork bere ekarpenetik eta posizioekin osatutako antolakuntza bultzatu da azken instantzian kontraesankorrak diren posizioen artean, egiazko posizioak inoiz azalera atera ez daitezkeen. Horrek, etxebizitzamugimenduan bertan bezala, etxebizitzamugimenduak gainerako borrokekin izan dezakeen loturan ere eragina du. Eta, hori ez da soilik unean uneko koordinazioei egin dakieken kritika (une jakinetan erabilgarriak izan baitira); koordinakundeei ezarpen organikoari ere egin diezaiotegu kritika hori, haien funtzio, azpitalde, minimoen adostasun eta marka propioa eta guzti. Horietan ere, eragile bakoitzak ez dio gainerakoekiko autonomia den zati bat izateari utzi.



Era berean, antolakuntza gabeziak eta zatikatze horrek ezkutatu egiten dute, finean, muga oinarrian dagoena: estrategia falta. Formakuntza espazioen faltak eta eragile desberdinen arteko eztabaida politiko sakonik ezak posizionamendu desberdinak argitu, garatu eta aurrez aurre jartzeko ezintasuna eragiten du. Baita estrategia bateratua egiteko eta koiunturaren analisia partekatze gaitasun falta ere. Horrek eguneroko jardunean eragina du. Izan ere, helbururik eta helmugarik izan ez eta espazio berean euren aurkakoak diren eta norabide desberdinean doazen proposamenak garatzen dira, eta ez dago bitarteko eraginkorrik pilatutako esperientziatik irakaspenak ateratzeko.



**Álex:** Uste dut, oro har, agortzen baino gehiago, ixten ari dela. Ixten ari da garai bat, zeinak gizartearen mobilizazio-egoera baino askoz aurreratuagoak ziren eguneroko borroka eta defentsa-praktiketarako borondatea eta zuhurtzia izatea ahalbidetu zuen, are aurreratuagoak proletalgoak subjektu historiko gisara izan zuen antolakuntza politikoaren mailari begiratzen badiogu. Agortze hori are nabarmenagoa da pandemiak eragin zuen bat-bateko etenaldiaz geroztik. 2020 eta 2021 urteen artean pixkanakoa izan zen, eta azken urte honetan larriagotu egin da. Ia nahi bezala okupatzeko genuen gaitasuna, kale-ratzeak urteetan ekiditeko izan den gaitasuna... uste dut hori guztia ameskeria izan zela. Espazioen kontrolerako eta defentsarako esperientzia interesgarriak eduki baditugu ere, hori ez da gertatu mobilizazio orokorrerako gaitasuna eduki dugulako edo kaosean esku hartzeko gaitasuna izan dugulako, ezta antolakuntza-mailan proletalgoaren boterean aurrera egin dugulako ere. Kontestu bati etekina ateratzen jakitea zerbait positiboa izan zen, baina, oro har, begirada estrategikoa falta izan zitzaigun, baita zer proiekturen alde lanean ari ginen jakitea ere, uneko egoera eta borondateaz harago.

Horrekin ez dut adierazi nahi etxebizitza sindikatuak dagoeneko erabilgarriak ez direnik. Hor jarraitzen dugu, lanean. Etxebizitzaren problematikak, oraindik ere proletalgoaren soldata eta bizi maila kaskartzen dituenek, politikaren eta ekonomiaren erdigunean dago Espainiako kapitalismoan, eta langile klaseko auzoetan degradazioa eta tentsioa eragiten ditu; horiek da gure lehentasuneko lan-eremua. Hori horrela den bitartean, beharrezkoak izango dira horrelako sindikatuak. Dena den, onartu behar dugu une honetan ez gaudela mobilizazio sozialaren une gorakor batean; kontrako egoeran gaude. Neurri berean, hedabideek ofentsiba bat abiatu dute; ofentsiba hori judiziala eta politikoa ere bada, eta eragina ari da izaten mugimenduan. Bereziki, gure antolakuntza ereduari ari zaio eragiten. Hori da parez pare dugun muga behinena, eta ebatzi beharreko auzia da. Mugak, nolabait, beti egon dira hor, baita garai onenetan ere. Esaterako, putre funtsen moduko etsaiak mendeen hartzeko zailtasunak okerrera egin du auzia azaleratu zenetik. “Militanteen” eta “kaltetuen” arteko zatiketak konpromisoari eta politizazioari dagokionez ere hor jarraitzen du; asanbladen antolakuntza-eskalak mugak ditu, eta erabilgarriak diren beste eskala batzuk sortzeko ezintasuna ere hor da, besteak beste.











**Ohikoa izaten da estrategiari lotutako mugak antolakuntzari edo sindikatuaren jardun taktikoari dagozkien ezintasunei egoztea. Etxebizitza sindikatuek izan duten muga politikoan adibide argia da alderdi sozialdemokratek haien lana instrumentalizatzea. Zein da zuen esperientzia horri lotuta, eta zer hausnarketa egiten duzue horren inguruan?**

**Alex:** Bi adibide emango dizkizut. Bata aspaldikoa da, etxebizitza arloan militante izaten hasi nintzenekoa. Ada Colauk eta DESC sektoreak PAH erabili zuten asmo elektoral garbierekin. Bere burua inongo alderdirekin bat egiten ez zuen eta independentea den plataforma bat bezala aurkezten bazuen ere, lidergoa eta herritartasunaren aldeko erretorikak gain hartu zien hasierako izate proletarioari. Horrela, bankuen kapitalismo “txararren” kritika moralaren aurpegi ekonomikoa ordeztzen zuten, hauteskundeak irabazteko. Hori dela eta, aktibista erradikalak ginenok, iraultzaileok, bakarrik utzi genituen proletargoaren zati bat eta berehala proletarizatu zen erdi-mailako klasearen zati bat, egoerari etekina atera zieten handinahi horien mesedetan. Irakaspen handia izan zen.



Bigarrena, oraingoagoa, Katalunian alokairua arautzeko legea onartu zedin Sindicat de Llogateresek aurrera eraman zuen dinamika da. Gure irakurketa garbia da: bertan lehengo instrumentalizatu zuten sindikatua, ERck legearen ideia aurkeztu eta sindikatua alderdiarekin negoziatzeko asi zenean; bat egin zuten interesek. Lehenengoek etxebizitzaren inguruan zegoen giro soziala aprobetxatu nahi izan zuten euren ezkerreko aurpegi erakutsi eta euren eskubiragoko bazkideak tenkatzeko. Bigarrenek etxebizitzaren lehentasun estrategikoa inposatu nahi zuten gainontzeko mugimenduei, eta beren burua administrazioak aitortutako eragile bezala aurkeztu. Bi kasuetan, oinarrian PAHk eta tokian tokiko sindikatuek eguneroko gatazkak mantentzeko ahalegina zegoen. Bigarren instrumentalizazioak legeari berari eragiten dio. Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen lege hori; 6 hila-

bete baino ez zuen iraun indarrean. Maizterrengan eragin oso txikia izan zuen, eta zalantzarria da nolako indarra eman zion mugimenduari. Baina ERC alderdiarentzat kanpainarako materiala izan zen, beste behin ere Kataluniako instituzioen aurkako eraso salatuz, eta, bide batez, hurrengo hauteskundeak irabazi zituen. Geroago, elementu horiek PSOeren Etxebizitza Legeak hartu ditu bere gain, baina askoz ere modu deskafeinatuagoan.

Hala, mugimenduaren ahaleginak lege-ekimen bihurtu dira, eta hartan, zati batek ez du haren gaineko kontrolik ere, lege horren onura mugatua da kuantitatiboki eta kualitatiboki, eta ez dago horrek mugimenduaren indar-metaketari nola mesede egiten dion argi azaltzen duen irakurketarik. Azkenik, desproporzioan, alderdi sozial liberal eta sozialdemokraten kanpaina politikoari, haren hauteskunde-trikimailuei, egiten die mesede.



## Nola antolatzen zaren eta borrokak elkarren artean nola lotzen diren ez daude planteamendu estrategikotik bereziak

**Lucía:** Jakina, lehen aipatu ditugun muga horiek guztiak ezin dira estrategiatik bereizi: nola antolatzen zaren eta borrokak elkarren artean nola lotzen diren ez daude planteamendu estrategikotik bereziak; kontrara, nahiz eta testuinguru konkretuan lurre-ratu beharrekoa den, planteamendu horretatik eratorriak dira. Absurdoa da “nola” jardun planteatzea argi izan gabe “zertarako”.

Adibidez, antolakunde batzuek, hala nola Sindicato de Inquilinasek, behin eta berriz diote “egiaz garrantzitsua” den eztabaida antolakuntzarena dela, eta,aldi berean, baieztatzen dute aipatu ditugun muga horiek gainditzeko ari direla, erreferentzia eginez antolakuntzari edo taktikari dagozkion zenbait kontu zeinek, maiz oso erabilgarriak izan arren, ez duten inola ere estratiariaren auzia ebazten.

Edonola ere, aurreko ziklo politikoaren ezaugarri nagusietako bat eztabaida politikoari beldurra izatea da, uste baitzen horrek automatikoki eztabaida akademikoen espiral batera eramango gintuela, gure artean zatiketa ugari sortuko zituela eta marginalitatera eramango gintuzkeen erradikalitasun autoerreferentzial batean amaituko genuela. Hori hain da horrela, ezen beren burua iraultzailatzat duten militante askoren ustez positiboa baita mugimendu berean ikuspegi iraultzaileak eta erreformistak egotea, eta ez zaie iruditzen gatazkatsua dela eztabaida sakonak eta programa propioa mahai gainean jartzeko ezintasuna. Guztiak minimoetako programak dira, guztiz lausoak, eta, beraz, haien bidez, sozialdemokraziari esku-eskuan uzten zaio aldarrikapen horiek bere programa orokorrean integratzeko aukera. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea gabezia estrategiko hori ez dela antolakuntza-mailan bakarrik konpontzeko modukoa, hau da, mugimenduan eztabaida horiei leku egiteak ez du gabezia desagerraraziko. Etxebizitza-mugimenduarentzako estrategia batez hitz egitea kontraesankorra da, estrategiak definizioz izan behar baitu zerbait integrala. Sektore erradikalei irudituko zaie esan gabe doala etxebizitzaren auzia ezin dela gainditu kapitalismoa bera gainditu gabe, baina hori esateak zenbait inplikazio ditu. Lehenbizi, estrategiak gaindipen horretara bideratua egon behar du, eta, bigarren, horrek ezin du etxebizitzaren arloko borrokek beren gain hartu beharreko zeregin eksklusibo izan behar, ezta “estrategia partzial” batzuen batura ere; modu integralean pentsatu behar da, osotasunetik.

Instrumentalizazio horren adibide bat jartzearen, duela gutxiko ekintza batean hau egin zuten: Desokuparen horma-irudia estali eta “Ni alquileres, ni hipotecas, ni deudas. Vivienda gratuita, universal, de calidad y bajo

control obrero” leloa jarri zuten (“Ez alokairurik, ez hipotekarik, ez zorrik. Etxebizitza doakoa, unibertsala, kalitatezkoa eta langileon kontrolpekoa”). Horrek dagoeneko erakusten du ari direla irekitzen duela urte batzuk pentsaezinak izango ziren eztabaida garrantzitsu batzuk. Mezua argia bada ere, ekintza hori ere instrumentalizatu egin zuten alderdi sozialdemokrata batzuek, zehazki Podemosek, esateko “gizarte zibilak” etxebizitzaren arloko neurriak eskatzen zizkiola gobernua-ri, eta hark ausarta izan behar zuela neurriok ezartzen. Zer dela-eta gertatu zen hori? Independentzia politikoa soilik antolakuntzari ez dagozkion bezala, ez da kontu soilik diskurtzioa ere. Baliteke batzuek pentsatzea mezu erradikalagoak jartzeagatik ez gintuztela instrumentalizatuko. Baina kontua ez da hori bakarrik, analisi eta diskurtso propioak behar dituzu, bai, baina baita haien galbahetik pasatu gabe hori transmititzeko indar materiala ere, eta proiektu integral bat, indarrak haren bueltan metatzeko. Hazi bai, baina zertarako? Ez badugu proiektu propiorik, beste batzuen elikatzen dugu; hutsune hori sozialdemokraziak betetzen du, beharrezkoa bada kontsignak iragaziz eta deformatuz. Beste adibide batzuk ere badaude, agian agerikoagoak, adibidez aipatu dugun Etxebizitzaren Legea bera, edo nola eman duten etxebizitzaren mugimenduko aurpegi ezagun batzuek alderdi politiko batzuetarako jauzia, adibidez Podemose-  
ra. Hori, noski, kritikatu egin dute sektore batzuek, maiz moralismotik eta autokonplazentziatik, traizioa seinatatzeko. Hala ere, mugimenduaren ahultasunak eta praktikak berak hori bultzatzen zuten: haren jardunaren zati handi bat Estatuari eskaerak egitea bada, logikoa eta guzti da batzuek Estatuaren barnetik ahalegintzea neurri horiek ezartzen. Berriz ere, erroko arazoa estrategikoa da.

## **Premiazkoa da erdi mailako klasearen politikaren eta proletariotzaren interesen arteko elkarbizitzarekin amaitzea**

### **Uste al duzue “etxebizitzaren aldeko mugimendua” esatea baliozkoa dela kontzeptu politiko moduan?**

**Álex:** Orain arte esan dugun guztia oinarri hartuta, etxebizitzaren borrokan parte hartzen dugun militante sozialistok hausnarketa argia dugu: gure ustez, etxebizitzaren mugimendua oraindik existitzen da politikoki, baina premiazkoa da hari zuzenketa handi bat egitea logika sozialdemokrata eta mugimentistaren eragin ideologikoarekin amaitzeko. Premiazkoa da erdi mailako klasearen politikaren eta proletariotzaren interesen arteko elkarbizitzarekin amaitzea; izan ere, elkarbizitza horiek Etxebizitzaren Legearen modukoak ditu ondorio zehatz gisa, non artikulu batzuek erdi mailako klase errentatzailearen interesei egiten dieten mesede, eta, era berean, lege horrek ez du ondoriorik proletariotza bere etxetik kanporatzen duten kasuetarako; ez ditu etxegabetzeak eteten.

Guk prozesu sozialistaren ortzi muga estrategikoa proposatzen dugu, eta hura aplikatzea borroka ekonomikoetarako, proletariotzaren gero eta ahulagoak diren erdi mailako klaseen geruzen autodefentsa antolatzeko, nahiz eta subjektu moduan oraindik oso sakabanatuta dagoen eta artikulazio politiko txikia duen. Eztabaida horiek garatu nahi ditugu mugimendua-rekin, etxebizitzaren arloko militante sozialista moduan, etxebizitzaren auzian parte hartzen duten gainera-koak interpelatu eta ikusi zer ondorio dakartzan horrek.

Halaber, ulertzen dugu burgesia erasoaldian ari dela eta mugimendua atzerakada izaten ari dela; horregatik, eztabaida horiek egiteaz gain, gaitasunak eskuratu behar direla dinamikak sortzeko, akordio taktikoak egiteko eta gerta daitezkeen mobilizazio edo koiunturei ekintza-batasunez aurre egiteko; ordea, gure ustez, independentzia politiko kontzientea izan behar da abiapuntua, eta ez unitate abstraktu bat, oinarri estrategikorik ez duena, edo, izanez gero, atzean erdi mailako klasearen estrategia –sozialdemokraziaren estrategia– ezkutatzen duena. Nahiz eta oraindik modu ez oso argian izan, oraintxe horixe ari dira eztabaidatzen Etxebizitzaren 2. Kongresuaren espazioan (*2n Congr s d'Habitatge*), zeina sortze-prozesuan ari baita iazko ikasturtetik.

Hori dela eta, gure ustez taktika eta haren baliozkotasuna praktikan probatu behar dira. Horrek guretzat ere balio du, gogorarazteko gure proposamenen zilegitasunaren erakusgarririk handiena haiek sindikatu funtzionaletan lurraraztea dela, eta ez airean edo paper gainean. Baina,aldi berean, inork ez luke erori behar taktikak eztabaidatu behar direla tematu baina estrategia argirik ez duten horien amarruan. Izan ere, estrategiaz eztabaidatu nahi ez duten horiek ez dute egin nahi edo ez dutelako estrategiarik, edo duten estrategia dominatzailea delako eta inplizituki besteen gainetik inposatzen delako.

**Lucía:** Momentuz, errealitate bat deskribatzen du: etxebizitzaren borroka hemen mugimendu sozialaren forma hartu du, antolakuntzako lotura solidorik ez duten aktore ugari izan dituen, ez duena kohesio politiko eta estrategikorik, borroka sektoriala izatea onartzen dena, etab. Era berean, agerikoa da, esan dudan guztiagatik, ezaugarri horietako asko gainditu beharreko mugak direla. Egiaz, zaila da irudikatzea, ezinezkoa dela ez esateagatik, muga horiek gainditu daitezkeela mugimendu sozialaren forma hori aldatu gabe; ezaugarri horiek inplizituki doaz forma horretan.

Hemen bada oraindik aipatu ez dugun gai bat, horri oso lotua: zein da etxebizitzaren borrokaren subjektua? Kasu askotan esan gabe joan zen: “etxebizitzarekin arazoren bat duena”. Hori ere inplizituki doa “etxebizitzaren mugimenduen” ideian, ez baitzen planteamendu politiko konkretuetatik sortu, partekatutako auzi batetik baizik, non klase-sektore zeharo desberdinak arlo konkretu horretan berehalako zenbait hobe-kuntza lortzeko borrokatzen baitira. Baina, zer da etxebizitzarekin arazo bat izatea, eta nork ditu era horretako arazoak? Galdera horri gutxitan heldu zaio sakon, eta diskurtsiboki batzuek hitz egiten zuten okupez, besteek familia zaurgarriez, langileez, maizterrez, auzoez, auzokideez... Baina, praktikan, etxebizitzaren mugimenduak oso modu mugatuan ulertu izan du: etxegabetez bati aurre egin behar diona, edo alokairuaren “neurrigabeko” igoera bati, etorkizunean etxegabetea izateko arriskuan dena. Alokairu-burbuilak, eta krisiaren kronifikazioak, oro har, are nabarmenago utzi zuten etxebizitzaren arazoa konplexuagoa eta zabalagoa dela: independentizatu ezin duten gazteak, beren diru-sareren ehuneko ikaragarri bat alokairura edo hipotekara zuzendu behar duten horiek, etxejabeek egiten dituzten biolentzia-forma desberdinak, okupazioaren kriminalizazioa, jende andana pisu txikietan pilatuta... Laburbilduz, oinarritzeko behar bat, etxebizitza, merkantzia izatea. Eta horrek, noski, ez dio gutxiengo bereziki prekarizatu bati eragiten, baizik eta geruza zabalagoi, neurri handiagoan edo txikiagoan.



Arazoa zera da: nola iritsi jende horrengana guztiarengana. Hor hasten dira nahasteak. Batetik, joera da gehiengoan proiektu bat izateak derrigor eskatzen duela diskurtso moderatuagoa izatea, eta, alderantziz, diskurtso erradikal batek marjinalitatea dakarrela, jendea beldurtzen duelako edo ez delako ulergarria izango. Hori horrela, “etxebizitza publikoaz” hitz egiten da (aztertu gabe zein utopikoa den hori Estatuari eskatzea kapitalismoa krisian dagoen garaiotan, eta baloratu gabe zer lortu nahi dugun hori bada gure azken eskaera); edo, hala nola “alokairu justua” aipatzen da, eta horrek etxebizitza merkantzia moduan naturalizatzen du. Zer ikuspegitik esan daiteke alokairuaren moduko zerbait “justua” izan daitekeela? Badirudi “doako etxebizitza” hitz egitea ulertezina dela jendearentzat. Halakoak erabiliz, mugimenduok gehiengoaren zentzu komunera egokitzten ari dira, hura beren proiektuarekin lotzeko (bide batez, estrategia hori du sozialdemokrazia populista berriak ere, hegemonia ulertzeko ikuspegi erreduktionistarekin), zure programaren bueltan zentzu komun berri bat sortu beharrean. Horrek, gainera, zeure lerro politikoaren kontrola galarazten dizu: zentzu komun hori aldatzen bada, zeure lerroa ere bai, eta, beraz, noraezean zabiltza.

Guretzat, hipotekatuak, maizterrek, okupak edo haiek guztiak antolatu nahiak ez du esan nahi ez dagoenik borroka horiek guztiak osotasunetik lantzeko subjekturik, hau da, proletarioria iraultzailerik. Eta ez dugu obrerismotik esaten, baizik eta proletarioria iraultzailearen interesen bueltan formulatzen ditugun soluzioek soluzio unibertsal moduan balio digutelako, desjabetze handiena nozitzen duen subjektua den neurrian; ez ditugu soluzioak klase-sektore jakin batzuen berehalako interes batzuen bueltan antolatu behar, hau da, beste klase-sektore batzuen kontura, edo klase-harremanaren terminoak mantentzearen.

Harrigarria da, ze, hori esaten dugunean, batzuek erantzuten digute: “ez, baina maizterrek proletarioak dira”. Are, batzuetan justifikatzeko alokairu bat ordaintzea esplotazio-harreman bat dela esaten da, eta hori okerra da. “Okupa” edo “maizter” hori “okupa” edo “maizter” gisara antolatu daiteke ala proletario moduan. Hautu politikoa da: zeuk aukeratzen duzu zer subjektu eraiki. Batez ere, ez da proletarioria soziologikoa antolatzea bakarrik; kontua hura kapitalismoa gaintzeko programa baten bueltan, hots, komunismoaren bueltan antolatzea da. Antolakunde bat proletarioria soziologikoaz eratua egoteak ez du esan nahi horrek ekarpena egingo dionik proletarioriazaren independentzia politikoari. Proletarioz osatutako futbol talde batek ekarpena egiten al dio, bada? Kontua ez da maizterrek indarra handitzea jabeekin duten gatazka horretan, baizik eta, gatazka horren bidez, gatazka hori gertatzen den terminoak aldatzea, harremana bera aldatzea, jabetza pribatua ukatuz. Horregatik da subjektua proletarioria iraultzailea. Subjektu hori ezin da inon “bilatu”; politikoki eraikitzen da. Hori dugu gaurko erronka.





*Kontua ez da maizterrek indarra handitzea jabeekin duten gatazka horretan, baizik eta, gatazka horren bidez, gatazka hori gertatzen den terminoak aldatzea, harremana bera aldatzea, jabetza pribatua ukatuz*





**Hain justu, bizi dugun erasoaldi kapitalistaren testuinguruan, aurreikustekoa da datoen urteotan gatazka sozialean foku izatea eta zentraltasun handia izatea. Zer erronkari heldu behar zaio etxebizitzaren aldeko borroka emantzipazio unibertsaleko horizonte bat elika dezan?**

**Alex:** Berehalako lehentasunetan, sindikatuak proletariotzarentzat tresna erabilgarriak izatea nahi badugu, haren egituraren eta lan-metodoen zati batzuk aldatu behar ditugu, mugimendu sozial mobilizatua zenean berezko zituenak. Gure egiturak sendotu behar ditugu, gu garaitzerik nahi ez badugu. Gaitasuna izan behar dugu, irekitzen ari den testuinguruan, defentsiboki maniobra taktiko zuzenak egiten.

Horren atzean eta paraleloan, akats bat zuzendu behar da: sindikatuen neutraltasun politikoa positibotzat jotzea. Hori eztabaida historikoa da sindikalismoaren eta sindikatuen esku-hartzearen ulerkerakomunista iraultzailearen arloan. Sindikatuen neutraltasunak dakarren gauza bakarra burokratak ugaritzea, beren burua neutral agertzen duen sozialdemokraziaren hegemonia mantentzea, eta, kasurik okerreanean, Estatuan zuzenean integratzea da. Gure garaiotan, sindikatuen neutraltasuna 15M-ko ziklotik aurrerako bi paradigma nagusik determinatu dute: mugimendu sozialaren formak eta antikapitalismo abstraktuak. Horrekin apurtu behar dugu. Inori ez dio minik ematen belarrira LAB sindikatu laboral abertzalea izateak edo CGT zentral sindikal anarkosindikalista izateak baina, aldiz, etxebizitzaren aldeko mugimenduan zentzu komun indartsu batek markaje ideologiko eta politikoa ukatu ditu, eta guk geuk ere garai askotan hori elikatu dugu. Etxebizitzaren aldeko borrokan orientazio ideologiko edo estrategiko argia izatea aurrerapausoa da, eta militante sozialistok geure gain hartzen dugu

hori sustatzeko zeregina. Baina, jakina: gure paradigma ideologikoa eta estrategikoa zuzenena dela erakutsi behar dugu, ulertuta gerra kulturalak eta komunismoa berriz hegemoniko bihurtzeak ez duela esan nahi etxebizitzaren propaganda egitea eta listo. Kontrara, ulertu behar da sindikatu funtzional batek efizientea izan behar duela geure klasearen beharrak asetzeko, baina, aldi berean, indar-metaketa sozialistarantz egin behar duela bultzatzea, koiuntura historikoa honek ematen digun aukera aprobetxatuta. Ez du sustatu behar alderdiek hauteskundeetan hari etekina ateratzea edo langile-klasearen zati jakin batek haren baldintzak korporatiboki hobetzea estratu baxuagoen kaletan. Umiltasunez planteatu behar da. Horiek lirake etxebizitzaren aldeko espiritu iraultzaileak eman beharreko lehenengo urratsak, hori bera ahalbidetzeko boluntarismoaz harago.

Halaber, aipatu dugun guztiarekin, etxebizitzaren auziaren eta mobilizazioen une gorenak itzultzen direnerako prestatu behar dugu, haren dimentsiorik espontaneo eta bitartekorik gabekoenean. Zehazki, helburua da sindikatuak eta etxebizitzaren borroka tresna eta azalpen erabilgarri moduan aurkeztea, hau da, bide posible moduan artikulatzea hipotekak ez-ordaintzearen epidemia berri bategi edo alokairuaren igoerak nola edo hala konpondu dituzten maizterrak bortxaz etxebizitzaren edo gune merkeagoetara lekualdatzeko sortutako ondorioak. Geuk ez badugu egiten, ezkerreko alderdien hanka mugimendistaren asmakizun berri horrek egingo du, eta bulkada erreakzionarioak elikatuko dira. ●

HISTORIA  
ERREPORTAJEA


# Boterea hartzea eta etxebizitzaren arazoa 1920ko hamarkadan

*Viena Gorriaren eta Narkomfin*  
kondentsadore sozialaren errepasoa



**Xabier Najarro**





**E**txebizitzaren arazoa beti izan da nagusi sozialismoaren baitan: Fourier edo Owen bezalako utopikoek beren falansterioetan eta kolonietan ikusten zuten, hurrenez hurren, gai horren konponbidea; Engelsek zera defendatzen zuten: “arazo sozialaren konponbidea da, hau da, ekoizpen kapitalistaren abolizioa, etxebizitzaren arazoa konpontzea ahalbidetzen duena” [1]; Parisko Komunakoek eta boltxebikeek, besteak beste, etxebizitzak konfiskatzeko neurria hartu zuten boterera iristean. Joan den mendeko 20ko hamarkadan zehar, alderdi sozialistak boterera iritsi zirenean, lehen lerrora pasatu ziren hiri sozialistaren formari buruzko eztabaida, etxebizitzaren auzia eta hura konpontzeko bideak.

Artikulu honen helburua esperientzia horietako batzuen hurbilpen laburra egitea da. Alde batetik, Vienako udal sozialdemokratak Gerra Handiaren ondoren hamabost urtez gauzatutako etxebizitza-programa zabala erreparasatuko da. Bestetik, Sobietar Batasuneko eraikin esperimental baten eraikuntzarekin amaitu zen prozesuari erreparatuko zaio. Prozesu horrek erradikalki komunitarioa izango zen bizimodu berri bat sortu asmo zuen. Esperientzia horiek, euren merituekin eta muga nabarmenekin, gaur egunera arte luzatu den arazoari heltzeko ahalegin originalak dira.





## VIENA GORRIKO ETXEBIZITZA-PROGRAMA

**L**ehen Mundu Gerraren eta inperio austro-hungariararen desagertzearen ondoren, 1918ko azaroaren 12an Austria-Alemanian Errepublika sortu zen. 1919ko otsailan hauteskundeak egin ziren hiru alderdi nagusien ordezkariak osatutako behin-behineko gobernuaren zuzendaritzaren erabakitzeko. Alderdi Sozialkristaua, Alderdi Sozialdemokrata (SDAP) eta Alemaniako Alderdi Nazionalista ziren ordura arteko gobernuaren osatutako zuzendakariak. SDAP garaile atera bazen ere, sozialkristauekin osatu behar izan zuen gobernuaren martxoan. Hurrengo hilabeteetako lehentasuna ekonomia-kolapsoa eta gosetea ekiditea izan zen, kontuan hartuta “herrialde hartako probintziak baliabide naturalak pobreenak eta monarkia zaharrek lurralde guztien artean mantentzen garestienak” zirena [2].

SDAP austromarxistek zuzentzen zuten intelektualki; izen nagusien artean, Max Adler, Otto Bauer, Karl Renner eta Rudolf Hilferding zeuden. Gerra aurretik zuten helburua Inperioa demokratizatzea eta estatu-nazioen federazio bihurtzea zen. Bestalde, ildo politikoa “independentea” zeukatelako nabarmentzen ziren: “Moskurekin eta Berlingo SPDren ildoarekin lerrotuta ez zegoen Internazional Sozialista berria” sortzen saiatu ziren, “sozialismo integralaren” ideia defendatuz, zeinaren asmoa “denborarekin sozialdemokraziaren eta komunismoaren onena bateratzea” zen [3].

Errepublika sortu berria zen koinbultza, iraultza komunistarako aukerak errealak zirenak, zer esanik ez Bavarian eta Hungarian, inguruko herrialdeak biak ere, haietan urte bereko udaberrian sobietar errepublikak ezarri zirela kontuan hartuta. SDAP beldur zen bere lurraldean zeuden langileen kontseiluek antzeko norabidea hartuko ote zuten, eta, beraz, *Volkswehr*-a (“herri-defentsa”) sortu –gerrako veteranoz osaturiko armada–, eta kontseiluak kontrolpe zorrotzean mantendu zituen, haietan komunistak gutxiengoa izanik ere [4]. Horrenbestez, Alemaniako sozialdemokraziarengandik bereizi gura bazuten ere, antzeko manerak egin zituzten mehatxu komunista neutralizatzeko beharri. SDAPk, masak geldiarazteko gaitasuna zeukan, Errepublikaren defentsara lerratu eta alderdi kontrairaultzaile modura jokatu zuen.

1920 inguruan, Austrian iraultza komunista bat izateko aukera bertan behera geratu zen, sozialkristauek Asanblada Nazionalaren kontrola hartu zuten eta SDAPk estatu-politikan zuten pisua gutxituz joan zen. Halere, hiriburuan, sozialdemokratek 1919ko udal-hauteskundeak irabazi zituzten, bozen % 54 eskuratuta [5]. Egoera horretan, SDAP bere feudoan gotortu zen, udal-mailako politiketan zentratuta. Horrela jaio zen 1919. eta 1934. urteen arteko aldia, *Viena Gorria* izenez ezaguna.







## SDAPk boterera iritsi zenean merkatu pribatua kontrolatzeari buruzko neurriak hartu zituen, alokairuen prezioa kontrolatu eta gutxiegi erabilitako etxebizitzak konfiskatu eta esleitzekoak



Viena etxebizitza-krisi batean murgilduta zegoen; ondoren gerrak larriagotu egin zuen, gainera. Eskasia eta alokairu altuak ziren arazo nagusiak, eta 1912an jada 550.000 pertsona baino gehiago egonak ziren noizbait etxerik gabeko pertsonentzako aldi baterako aterpetxeetan. Gerraren ezta edo etxebizitzaren eraikuntza geldiarazi zuen, eta unitate asko beste helburu batzuetarako birmoldatzea eragin zuen. 1918an, hutsik zeuden etxebizitzaren tasa ia zero zen; 1919ko irailean, berriz, 105 baino ez zeuden, eta ez zituzten betetzen horietan bizitzeko baldintzak<sup>[6]</sup>. Ez da harritzekoa egoera horretan etxebizitzak jendez gainezka egotea. Gerra amaitu ondoren, krisia areagotu zen soldaduak eta errefuxiatuak hiriburura aterpe bila iristean. SDAPk betetzen zuen eginkizun egonkortzailea kontuan hartuta, etxebizitzaren arazoa zentral bilakatu zen handik aurrera; alderdiak krisiari aurre egiteko planteatutako politiketik saihestu egin behar zuten ezarritako ordena iraultzea.

Udal sozialdemokratik gauzatu-tako programak hainbat ildo izan zituen. SDAPk boterera iritsi zenean merkatu pribatua kontrolatzeari buruzko neurriak hartu zituen, alokairuen prezioa kontrolatu eta gutxiegi erabilitako etxebizitzak konfiskatu eta esleitzekoak. Alokairuen prezioaren kontrolari esker, jaitsi egin zen -gerra aurretik langile baten batez besteko diru-sarreraren % 25 inguru izatetik, 1922an % 4 izatera igaro zen-, baina neurri horrek aurre egin ezin ziren zenbait arazo zeuden, hala nola etxebizitzaren eskasia eta etxebizitza bakarrean jende gehiegi bizitzea. Konfiskatze-sistemak ahulezia horiek gainditu nahi zituen: gehiegizko jabetzak izatea konfiskatzeko arrazoa zen, eta udal-etxebizitza berrien eraikuntza ordaintzeko isuna ordainduz baino ezin zen saihestu. Modu horretan, guztira 500.000 etxebizitzatik 44.838 etxebizitza konfiskatu, eta 9.385 esleitu ziren urtebetean<sup>[7]</sup>. Etxebizitzaren esleipena premian oinarritzen zen, eta hainbat faktore hartzen zituen kontuan, hala nola etxearen tamaina edo maizterren osasuna.

Hala eta guztiz ere, gutxiegi erabilitako etxebizitzaren kopuruak ezin zuen Vienako eskari handia ase. Une horretan, hiriaren kanpoaldeko kokaleku informalek hazten ari ziren<sup>[8]</sup>, eta hasieran premia hutsagatik eta espontaneoki jaio baziren ere, udalak estatus legala ematearen eta baliabide material eta teknikoak erraztearen aldeko apustua egin zuen, beren etxebizitzaren egoera hobetu zezaten. Ez hori bakarrik, egoera horretatik sortu ziren kooperatibei ere lagundu zien. Baliabide publikoekin eraikitako etxebizitza horien titulartasuna udalari transferitu zitzaion ondoren.

1923tik aurrera, aurreko neurrien eragin eskasaren eta austriar moneta-aren egonkortzearen ondoren, SDAPk eskala handiko udal etxebizitzak (*Gemeindebauten*) eraikitzearen aldeko apustua egin zuen, enplegua sortzeaz gain, langabezia-tasa altuak arintzen laguntzeko. 1923ko otsailean, lehen etxebizitza-programa abiarazi zen, eta denbora errekorrean eraiki: urtearen amaierarako 2.256 etxebizitza eraiki ziren, nahiz eta 1.000 bakarrik zituzten aurreikusiak. Arrakasta horren ondo-

# Zerbitzuok haien azpiegituran integratuta, *Höfe*-ek bizimodu berri bat iradokitzen zuten; Vienako etxebizitza sozialak eginkizun praktikoa ez ezik, ideologikoa ere betetzen zuten

rioz, etxebizitzak eraikitzeke bost urteko lehen plana egin zen, eta udazken horretan bertan eman zen haren berri. Plan horren arabera, 25.000 etxebizitza baino gehiago eraikiko ziren bost urtean. 1926aren amaieran, zifra horiek aise gaudituta, udalak beste 5.000 gehitu zizkion planari. 1927aren amaierarako, aurreikusitako 30.000 etxebizitzetatik 2.378 bakarrik falta ziren eraikitzeke, eta beste 6.000 eraikitzen ari ziren. Urte horretan bertan bost urteko bigarren plana iragarri bazen ere, 1933rako aurreikusitako beste 30.000 etxebizitzak ez zituzten amaitu, tentsio politikoa edo depresio ekonomiko globala zirela tarteko, besteak beste<sup>[9]</sup>. Hala eta guztiz ere, SDAPren Vienako etxebizitza-programaren zifrak deigarriak dira: 1919 eta 1934 bitartean, udalak 63.294 etxebizitza berri eraiki zituen Vienan; horrek esan nahi du hamar etxebizitzatik bat erakunde publikoen sorkuntza berria zela, eta ia 200.000 vienaar bizi zirela etxebizitza haietan<sup>[10]</sup>.



Funts galdurako proiektu hori ordaintzeko finantzaketa, batez ere, bildutako zergetatik etorri zen. Horri dagokionez, sozialdemokraten estrategiaren ezaugarri nagusiak hauek izan ziren: “luxuzko ondasunei zerga gehiago ezartzea beharrezan baina” –beraz, ez da harritzekoa “udal-zerbitzuek, zeinak gehiengoaren beharra baitziren, tasa baxuak edo nulua izatea”–; “progresibitate handia ezartzea tasetan, bai eta zergapetu beharreko diru-iturrien hautaketan ere”; eta zergak zehazki zertan erabiltzen ziren adierazten zuten “funtsak esleitzeko” modu bat ezartzea<sup>[11]</sup>. Ildo horretan, gastu gehienak berdintzen zituen zerga “Etxebizitzak Eraikitzeke Zerga” (*Wohnbausteuer*) zen, 1923an dekretatutako zerga progresiboa, alokairu-kانونei aplikatutakoa.

Etxebizitzaren ezaugarrietara itzuliz, *Viena Gorrian Höfe* direlakoak (patioak) izan ziren nagusi –superbloke ekipatuak, hiriko ehunean txertatu zirenak–, *Siedlungen* zerituzen aldean –familia bakarreko etxez osatuak–. Milaka apartamentu har zitzaizkien bloke horiek hiriaren inguruko eraztunean eraiki ziren, gerora “Proletarioen *Ringstrasse*” izenez ezagutu den horretan. Eraikin izugarri horiek sarrera nagusiak zituzten, berdeguneak dituzten patio zabaletara ematen zutenak. Era berean, nahiz eta *Höfe*-etako apartamentuak txikiak izan eta gutxieneko hornikuntza izan, bertan bizi ziren komunitateen beregaintasunerako zerbitzu kolektibo ugari zeuden: “*Gemeindebauten*-etan instalazio publikoei eman zitzaizkien garrantzia, komunalei, hala nola hauei: ekipamendu modernoko garbitegiak, bainuontziak eta dutxak zituzten bainu-tokiak (batzuek bainu-gela turkiarrak eta igerilekuak zeuzkaten), haurtzaindegiak, haur-eskolak, klinikak, liburutegiak, zurgintza-tailerrak, bilera-aretoak, antzokiak, eta baita zinemak ere”<sup>[12]</sup>.

Beraz, zerbitzuok haien azpiegituran integratuta, *Höfe*-ek bizimodu berri bat iradokitzen zuten; Vienako etxebizitza sozialak eginkizun praktikoa ez ezik, ideologikoa ere betetzen zuten. Eraikitako 400 blokeetatik handiena eta ospetsuena –politikari eta egile ospetsuen izenez izendatzen zituzten– Karl-Marx-Hof zen, Karl Ehenek diseinatu, Otto Wagnerren dizipulua eta nazien zerbitzura lan egiten amaitu zuena. 1927 eta 1930 bitartean eraiki zen. Eraikuntza perimetral konplexu horrek 1,2 kilometroko luzera du, eta lau-sei solairuko altuerako blokeak. Gotorleku itxura du, eta “sarrera arkuak eta bandera-adarrez koroatutako dorreak, etorkizun loriatsu baterantz eskutik emanda doazela diruditenak”; badira hura “masa-adierazpen baten baliokide arkitektonikotzat” jotzen dutenak ere<sup>[13]</sup>. Bertan, gutxi gorabehera 5.000 lagunentzako 1.380 etxebizitza eraiki ziren. Apartamentuak 30 eta 60 m<sup>2</sup> artekoak ziren, eta gela bat edo bi, egongela bat, sukalde bat eta komun txiki bat zituzten. Tamaina handia izan ez arren, argitsuak eta aireztatuak ziren, diseinuak egiteko erabili zuten antolamenduari eskerrak. Gainerako etxe komunalen moduan, funtzio anitzeko gunean zerbitzu ugari zeuden beheko solairuetan eta patioetan: haurtzaindegiak, liburutegia, hortz-klinika, bi bainueta, bi garbitegi, etab.<sup>[14]</sup>

Kontuak kontu, SDAPren boterea ameskeria zen: Viena isolatuta zegoen gainerako Austriarekiko, han indar erreazionarioagoak baitziren nagusi, eta sozialdemokratek hartutako neurriak errezeloz ikusten zituzten. 1934ko gerra zibil laburrak *Viena Gorria* akabatu zuen. *Höfe*-ek austrofaxisten aurkako gotorleku gisa balio izan zuten; Karl-Marx-Hof bera armadak bonbardatu zuen. Gaur egun, horietako batzuek udal-etxebizitza gisa funtzionatzen jarraitzen dute.

## NARKOMFIN KONDENTSADORE SOZIALA

Urriko Iraultzaren ondoren, gobernu sobietarrak, oraindik zurien aurkako gerran murgilduta, bere biztanleak etxebizitzaz hornitzeko lan zailari ekin beharrean ikusi zuen bere burua. 1918an, bi dekretu onartu ziren norabide horretan: “Lurra nazionalizatzeko dekretua” eta “Hirieta higitzeko dekretua”. Horrela, burgesiaren etxeak sozializatzen hasi ziren, eta horrek langile klasearen egoera txarrari aurre egitea ahalbidetu zuen [15]. Berehalako neurri horrek eta etxebizitza berriak eraikitzeak muga argiak zituzten: egoera horretan ezinezkoa zen familia bakoitzari ohiko etxebizitza bat ematea; eraikuntza berriak, “nahiz eta programa kolektiboak barne hartu, XX. mendearen hasierako etxebizitza burgesaren kopia murriztuak ziren”, eta sobietarrek oinarri zituzten postulatuei teorikoek “haratago joateko beharra adierazten zuten (...); etxebizitzak bizimodu berrira egokitzeko aukera izan behar zuten, eta, aldi berean, haren eraldaketa bultzatu” [16].

Kontua ez zen soilik burges estiloako apartamentuak hornitzea familia batzuei ostatu emateko: etxebizitzari buruzko ikuspegi berri bat sortu behar zen. Hau da, sobietar etxe berriek bizimodu (byt) eraldatzen lagundu behar zuten. 1920ko hamarkadaren hasieratik erdialdera arte nagusi izan ziren familia bakarreko etxeen eta familia anitzeko etxebizitza-blokeen aldean –eredu konbentzionalak, nagusiki–, beharrezkoa zen irtenbide berriak bilatzea Politika Ekonomiko Berriak ekarritako hirietan bizitako hazkunde demografiko azkarra kudeatzeko. Tes-tuinguru horretan, hainbat arkitektura-lehiaketa egin ziren etxe komunalen diseinuan esperimintatzeko, adibidez, Moskuko Sobietak 1922an sustatu zituenak langile-etxeen bi eskema diseinatzeke eta 1925ean emakumea etxeko eremutik askatzeko [17].

Lehiaketa horietan parte-hartze handirik egon ez zen arren, ikerketa ez zen hor geratu. 1925ean Arkitekto Garaikideen Elkarte (OSA, errusierazko sigletan) sortu zen, konstruktibismoarekin lotutako abangoardiako arkitektoek osatua. Moisei Ginzburg eta Vesnin anaiak buru zituela, 1920ko hamarkadako sobietar eta nazioarteko arkitekturan eraginik handiena izan zuen taldeetako bat bihurtu zen, eta *Sovremennaiia Arkhitektura* (Arkitektura Garaikidea) aldizkarian argitaratu zituen egindako ikerlanak. Taldeak arkitekturaren berrikuntzarekin zuen konpromisoa konpromiso politikoarekin lotuta zegoen: beren proiektuen bidez, gizarte berria eraikitzen lagundu nahi zuten. Hala zioen OSAk: “arkitekturaren helburua gizarte sozialistaren nahiak islatuko dituen eta, aldi berean, gizartean bertan eragina izango duen bizitza-esparru berri bat eraikitzea da” [18]. Hemen funtsezkoa da *kondentsadore sozialaren* kontzeptua. Egitura berri horiek funtzio desberdinak bilduko zituzten beren barruan bizitza kolektibizatzeke, eta, horrela, “gizartea eraldatzeko moldea eta tresna” bihurtuko ziren [19]. Horrek, jakina, ez du esan nahi modu inozentean defendatzen zutenik egitura mota berri batean bizitzea nahikoa dela bizimodu erabat eraldatzeko: bazekiten garapen ekonomikoaren mailak edozein eraldaketa posible mugatzen zuela. Gizarte-harreman berriak islatu eta sustatu behar zituzten egitura horien artean aurki zitezkeen langile-klubak, etxebizitzak –hori da guri dagokiguna– eta, azken batean, hiria bere osotasunean.


1926an, OSAk, bere aldizkariaren bidez, lagunarteko lehiaketa bat iragarri zuen langileen etxebizitza diseinatzeke, eta etxe komunari buruzko bi inkesta ere bazetozen, etorkizuneko maizterrei eta teknikariei zuzenduak. Lehiaketarako jasotako proposamen guztiek kolektibizazio neurritsu eta trantsiziozkoaren alde egiten zuten, eta horrek erakusten du unean uneko errealitateko diseinatuta zeudela; horren ondorioz, arkitekto horiek ziren

“erregimen osoan aproposenak ordena berrirako bidea irekiko zuten trantsiziozko eredu berriak definitzeko” [20].

Horrek guztiak piztu zuen interesagatik, 1928an, *Stroikom* (Eraikuntzarako Batzordea) delakoaren barruan, etxebizitza estandarizatzeko departamentu bat sortu zen, Ginzburg buru zuela. Hiru hilabeteen, metodologia berritzaile baten bidez, hainbat etxebizitza-zelula diseinatu zituen, SESBen etxebizitza berriak masan eraikitzeke eredu gisa erabili nahi zituztenak. Emaitzek erakutsi zuten apartamentu burgesen “miniaturizazioa” ez zela uste bezain eraginkorra, eta etxebizitzarik merkeena erlatiboki 50 m<sup>2</sup> ingurukoa zela, hiru logela, sukaldea eta bainugela zituena. Hala ere, etxe mota hori ez zen eskuragarria herritar gehienentzat (% 60 ingururentzat), eta, beraz, konponbidea “F motako etxebizitza-zelula” berritzaileak erostea izan zen: “27 m<sup>2</sup>-ko (30 m<sup>2</sup>, bertsio hobetuan) gutxieneko bizitokiak”. Bizitza komunitario bat adierazten zuen arren –gela bat, sukalde txiki bat, bainugela eta dutxa besterik ez zituen–, “bizitza mota guztietako funtsezko balioei eusten zien”, hala nola “familia-bizitzaren intimitateari, bizilagunekiko erabateko banantzeari, isolamendurako aukerari eta abarri” [21]. Ondorioz, F mota zen irtenbiderik eskuragarriena biztanle gehienek ostatu emateko eta, aldi berean, bizimodu berri bat sustatzeko. Nolabaiteko ospea izan arren, sei eraikin besterik ez ziren eraiki *Stroikom*-en postulatuei jarraituz, Moskuko *Narkomfin* nabarmena izanik.

Nikolay Miliutin Finantza komisarioak eskatuta, *Narkomfin* gunea 54 apartamentutan Finantza Komisariotza Popularreko 50 langile familiari ostatu emateko eraiki zen. Ginzburg eta Milinis izan ziren trantsizio-motako etxe esperimintal gisa pentsatutako *kondentsadore sozial* horren arkitektoak. Ideia zen bertan etxebizitza-eredu desberdinak egotea, denborekin erabateko etxe komunalerako trantsizioa gerta zedin.

**Kontua ez zen soilik burges estiloko apartamentuak hornitzea familia batzuei ostatu emateko: etxebizitzari buruzko ikuspegi berri bat sortu behar zen. Hau da, sobietar etxe berriek bizimodua (*byt*) eraldatzen lagundu behar zuten**



**Idea zen bertan etxebizitza-eredu desberdinak egotea, denborarekin erabateko etxe komunalerako trantsizioa gerta zedin**






Horrela, etxebizitza-bloke horizontalean –eraikinaren egitura nagusia–, lehen aipatutako F motako zelulez gain, K eta 2-F motako zelulak ere bazeuden. F motako zelulak pertsona batentzat edo birentzat diseinatura zeuden, eta abangoardistenak ziren: gutxienekoarekin hornituta, ez zuten banaketarik gela komunaren eta logelaren artean. Gela hori 5 metroko altuerakoa zen, eta bainugela eta dutxa ziren eremu itxi bakarrak. Zelula horiek leiho handiak zituzten, eta aireztapena eta argi naturala eskaintzen zizkieten maizterrei, inguruko munduarekin konektatzeko. K motako zelulak komunitatearen mende ez zeuden familientzat diseinatura zeuden, buruaskiak ziren eta gela bat gehiago zuten. Hala ere, F motako zeluletan bezala, gela komuna eta logela nagusia banandu gabe mantendu ziren. Modu horretan, etxeko espazio horietan begi-bistan zegoen espazioa “etxeko eremuan idealki sozializatu daitezkeen alderdiek hartzen zuten. Begiruneagatik edo patroï burgesak kontserbatzeagatik sozializatu ezin zen beste guztia ez ikusteko moduan zeuden etxeko espazioetan gorde ziren”<sup>[22]</sup>. 2-F motako zelulak apartamentu burgesen ia berdinak ziren: erabat independenteak eta gela guztiak hormaz banatuak. Eraikin horretako azken solairuan zeuden, halaber, Miliutin komisarioaren atikoa eta ohe tolesgarriak eta dutxa partekatuak zituzten logela batzuk. Gainera, teilatuan kristalezko zirkuluerdi formako espazio bat zegoen, areto komunaren funtzioak betetzen zituena<sup>[23]</sup>.


Baina *Narkomfin*-en eremua eraikin gehiagoz osatuta zegoen. Bloke komunala etxebizitza-blokearekin lotuta zegoen zubi itxi baten bidez. Lehen solairuan gimnasio bat, aldagelak, atsedena-gela bat eta biltegiak zeuden; bigarrean, berriz, bi altuerako jangela bat –udarako jangela estalia ere bazegoen–, sukaldea, irakurketa-gela bat eta zerbitzu-instalazioak. Garbitagia beste eraikin berezi batean zegoen. Era berean, haurrak zaintzeko laugarren eraikin bat planifikatu zen, baina inoiz ez zen eraiki, eta, beraz, lan hori eraikin komunitarioaren eremu librean egin zen<sup>[24]</sup>.

Eraikin multzoa 1930ean amaitu zen eraikitzen. Une horretarako, OSA gainbeheran zegoen, eta haren ikuskerak zalantzan jartzen hasiak: bizimoduaren erreforma desagertzen ari zen lehentasunen artean. Hori *Narkomfin*-en islatu zen, eta beharrak diseinaturako espazioak funtzioz erabat aldatzea eragin zuen, eta apartamentuak eta logelak aipatutako zubian edo etxebizitza-blokeari eusten zioten zutabeen eremuan integratzera iritsi ziren. Horrela, Ginzburgek 1932an eremuari buruzko bere ikerketa kritikoa idatzi zuenerako “*Narkomfin*-eko etxe komunala historiaren zaborrontzira baztertua izan zen iraganeko garai bateko adierazpen berezi eta arkaiko gisa”<sup>[25]</sup>. Gaur egun, Ginzburgen bilobak zaharberritu ondoren, luxuzko pisuak ditu.


# HISTORIA



Alçat oest




Alçat nord



Alçat sud




Spas F - Nivel 1



Spas F - Nivel 2



Spas F - Nivel 3



Spas K - Nivel 2



Spas K - Nivel 2



**Garapen pertsonalerako ezinbesteko puntua denez, bizitza erreproduzitzeko beharrezkoak diren zereginetarako irtenbide kolektiboak beti egon behar du presente etxebizitza sozialistako programa batea**



## ONDORIOAK

Testuan zehar bi esperientzia ezberdin deskribatu dira, baina puntu komun batzuekin. SDAPk Austriako hiriburuan gauzatutako programa argiki erreformista zen estrategia baten barruan zegoen. Beren erreforma eta erakundeen bidez, herri-kultura (*Volkskultur*) birmoldatuko zuen langile-kultura (*Arbeitskultur*) sortu nahi zuten<sup>[26]</sup>, baina beti ere *statu quo*-a mantentzeko konpromisoa atzendu gabe. Etxebizitza eraikitzeako programa zen bizimodua eraldatzeko politika horien ardatza. Hala ere, *Höfe*-ak Tafurik “hiri birtual” deitu zuena izan ziren. Hala esan zuen Tafurik: “haitan etxebizitza hasieratik da behin-behinekoa: gotorleku gorri harroek nekez ezkututzen dute haien atzeko kontraesana”. Dioenez, superbloke horiek hiria den bezala onartzen zuten, baina, aldiz, “bestelako errealitate bat” lortu nahi zuten, “eta, bestalde, errealitate hori eskuratzina dela salatzen”<sup>[27]</sup>. Alde horretatik, superblokeak ez zituzten inoiz bertako egoiliarrek zuzenean kudeatu, eta horma haien barruan ezin izan zen inoiz lanaren banaketa sexuala ezabatu<sup>[28]</sup>. Engelsek zuzen dioten bezala, horrelako zerbait ulertzeko beharrezkoa da produkzio-modu kapitalistaren abolizioa. Halere, ezin da gutxietsi *Viena Gorriko* etxebizitza-programak egoera izugarri zailean zegoen herrialde bateko langileriarri ekarri zion aurrerapen handia. Magrisek hala iradoki zuen: “patioek eta parterreek nolabaiteko alaitasun malenkoniatsua dute; etxe horien aurretik zulo zikinetan edo izenik gabeko arratoi-zuloetan bizi ziren haurren jolasei buruz mintzo dira, eta baita etxe horietan lehen aldiz duintasunez pertsona gisa bizitzeko aukera izan zuten familien harrotasunaz ere”<sup>[29]</sup>.

Sobietar Batasuneko egoera guztiz desberdina zen. *Narkomfin*-en eraikuntzan amaitu zen proiektuak ez zuen erreformaren ertzetan geratu nahi: gizarte berri bat eraikitzen laguntzea zuen helburu. Beste era batera esanda, kondentsadore sozial berri horien bidez bizimodua eraldatzeko beharra iraultzaren eskakizuna zen. Hala ere, OSAko arkitekto konstruktibisten konpromiso iraultzaileak zailtasun ugari izan zituen parean. Ezinezkoa da kalitatezko etxebizitzak masan eraikitzea bizimodua errotik eraldatzeko eta, aldi berean, bost urteko planaren industrializazio-gastu izugarriari aurre egitea. Gainera, nekazaritza nagusi den herrialde batean, zaila da etxebizitzaren arloan errotuta dauden ikusmoldeekin eta tradizioekin amaitzea. Garai hartan sobietar populazioa ez zegoen prest bizitza komunalerako urratsa emateko; etxebizitza idealaren helburua iraultzaren aurreko etxe burgesena zen. Horregatik iritsi ziren 20ko hamarkadako arkitektoak “goizegi eta beranduegi”: goizegi baldintza objektiboek “hiri ideal bateko hiritar idealaren” sorrera eragozten zutelako, eta, beranduegi “esperientzien garaia igaro zelako eta 20ko hamarkadako ilusioz betetako ametsaren nolabaiteko arduragabekeria (...) 30eko hamarkadako beharrian planifikatueta pasatu zelako”<sup>[30]</sup>. Azken batean, baliteke etxebizitza komunalen estandarizazio-plana, *Narkomfin* zuena adibiderik nabarmenena, huts egindako plan bat izatea, baina habitat berri bat sortzen saiatzeko, interesgarria da hura “produkzio-akats” gisa ulertzea, Buchlinek egin moduan<sup>[31]</sup>.

Amaitzeko, antzekotasunei dagokienez, Hatherleyk bezala, boltxebikeek Viena “hiri imitatua” zela defendatzen dute batzuek, eta elementu arkitektoniko askotan ikus daiteke hori<sup>[32]</sup>. Eskulturak eta ardatz simetrikoak aldekatzea baino garrantzitsuagoa da nire ustez bi esperientziek partekatzen duten ezaugarri bati erreparatzea: etxe komunaren garrantzia. Bai *Höfe*-etan bai *Narkomfin*-en, espazio eta ekipamendu kolektiboek funtsezko dimentsioa hartzen dute, horretarako intimitatea ezabatu beharrik gabe. Garapen pertsonalerako ezinbesteko puntua denez, etxebizitza sozialistako programa batean beti egon behar du presente bizitza erreproduzitzeko beharrezkoak diren zereginak kolektiboki ebazteak. Jakina, etxe komunetik urrun daude *cohousing* edo *coliving* bezalako formula ustez aurrerakoiak, langileriarren kalitatezko etxebizitza eskuratzeko ezintasuna islatzen dutenak eta hura miseriara kondenatzen. Gizarte-harreman berriak islatu eta sustatu behar dituen kondentsadore soziala izan behar du etxe komunak. Azkenik, esan gabe doa etxebizitza sozialistaren sistema garatzeko edozein planteamenduk unean uneko errealitatera egokitzeko aukera ematen dioten ikerketa luzeen emaitza izan behar duela, eta ez aurreko esperientzien kopia dogmatikoa. ●



ERREPORTAJEA



**BIBLIOGRAFIA**

**[1]** Engels, F., *Contribución al problema de la vivienda*, Fundación Federico Engels, Madril, 2006, 55.or.

**[2]** Blau, E., *The architecture of Red Vienna, 1919-1934*, The MIT Press, Cambridge, Massachusetts, 1999, 26. or. Artikuluan erabilitako hitzez hitzeko aipu guztiak geuk itzuliak dira. Ingeleseko testu batetik datozenak, itzulpen propiokoak dira.

**[3]** Ducange, J.N., *La Viena Roja Le Monde Diplomatique*, 2022ko maiatza, eskuragarri hemen: [shorturl.at/PST89](https://shorturl.at/PST89)

**[4]** Gruber, H., *Red Vienna: experiment in working class culture 1919-1934*, Oxford University Press, Oxford/Nueva York, 1991, 19-20. or.

**[5]** Blau, op.cit.

**[6]** Marcuse, P., "The housing policy of Social Democracy: determinants and consequences" hemen: Rabinbach, A. (ed.) *The Austrian socialist experiment. Socialdemocracy and austromarxism, 1918-1934*, 201-221 or., Westview Press, Boulder, 1985.

**[7]** Marcuse, P. "A useful installment of socialist work: housing in Red Vienna in the 1920s" hemen: Bratt, R.G., Hartman, C. y Meyerson, A. (eds.), *Critical perspectives on housing*, 558 – 585 or., Temple University Press, Philadelphia, 1986, 563. or.

**[8]** 1919an 14.000 unitate ziren kokaleku horiek, eta 1921ean, berriz, 30.000. *Ibid.*, 565.or.

**[9]** Blau, op.cit., 45. or.

**[10]** Gruber., op.cit. 46. or

**[11]** Marcuse, P., "A useful installment...", 571. or.

**[12]** Blau, op. cit., 7.or.

**[13]** Hatherley, O., "Socialism and Nationalism on the Danube" *Places Journal*, 2017ko maiatza, eskuragarri hemen: [shorturl.at/tBILT](https://shorturl.at/tBILT)

**[14]** Prokopljević, J., "Karl Marx Hof, la supermanzana de la Viena Roja" *Veredes. Arquitectura y divulgación*, 2021eko urtarrila, eskuragarri hemen: [shorturl.at/syJK3](https://shorturl.at/syJK3)

**[15]** Soilik Moskun, 1918 y 1924 urte bitartean, modu horretan birkokatu zituzten milioi erdi langile eta euren familiak. Bliznakov, M., "Soviet housing during the experimental years, 1918 to 1933" eskuragarri: Craft Brumfield, W., Ruble, B.A., (eds), *Russian housing in the modern age: design and social history*, 85-148. or, Woodrow Wilson Center Press eta Cambridge University Press, Cambridge, 1993, 85. or.

**[16]** Movilla Vega, D., Espegel Alonso, C., "Hacia la nueva sociedad comunista: la casa de transición del Narkomfin, epílogo de una investigación" eskuragarri: *Proyecto, Progreso, Arquitectura*, 9. zk., 26-50.orr, 2013ko azaroa, 27. or.

**[17]** Movilla Vega, D., "Housing and Revolution: From the Dom-Kommuna to the Transitional Type of Experimental House (1926-30)" hemen: *Architectural Histories*, 8(1): 2, 1-16.or. 2020.

**[18]** Kopp, A., *Arquitectura y urbanismo soviéticos de los años veinte*, Editorial Lumen, Barcelona, 1974, 128. or.

**[19]** *Ibid.*, 124. or.

**[20]** Movilla, Espegel, op.cit., 38. or

**[21]** Kopp, op.cit., 169.or

**[22]** Buchli, V., "Moisei Ginzburg's Narkomfin Communal House in Moscow: Contesting the Social and Material World" hemen: *Journal of the Society of Architectural Historians*, Vol. 57, No. 2, 160-181, or. online bertsioa, 1998ko ekaina, 171.or.

**[23]** Buchli, V., *An archaeology of socialism*, Berg, Oxford, 1999, 73-74. or.

**[24]** Movilla, Espegel, op.cit., 46-48. or.

**[25]** Buchli, V., "Moisei Ginzburg's...", 177.or.

**[26]** Blau, op.cit., p.6.

**[27]** Tafuri, M., "Das Rote Wien. Política y arquitectura residencial en la Viena socialista", *Arquitectura: Revista del Colegio Oficial de Arquitectos de Madrid (COAM)*, 278-279. zk., 16-41. or., 1989, 37-39.or.

**[28]** Marcuse, P., "A useful installment...", 574. or.

**[29]** Magris, C., *El Danubio*, Anagrama, Bartzelona, 2019, 181. or

**[30]** Kopp, op.cit., 248. or.

**[31]** Buchli, V., "The social condenser: again, again and again—the case for the Narkomfin Communal House, Moscow" *The Journal of Architecture*, 22:3, 387-402.or., 2017, 388.or.

**[32]** Hatherley, O., *Paisajes del comunismo*, Capitán Swing Libros, Madril, 2022, 45.or.

---

Argitalpena  
**2023KO IRAILA**  
EUSKAL HERRIA

---

Koordinazioa,  
erredakzioa  
eta diseinua  
**GEDAR LANGILE  
KAZETA**

---

Web  
**GEDAR.EUS**

---

Sare sozialak  
TWITTER ETA  
INSTAGRAM  
**@ARTEKA\_GEDAR**

---

Kontaktua  
**HARREMANAK@  
GEDAR.EUS**

Harpidetza  
**GEDAR.EUS/  
HARPIDETZA**

---

Edizioa  
**ZIRRINTA  
KOMUNIKAZIO  
ELKARTEA**  
AZPEITIA

---

Lege gordailua  
**SS-01360-2019**

---

ISSN  
**2792-4548**

---

Lizentzia







arteka